

HAMAIKA KOMERIA BIDAIATZEKO

Autobusez mugitzeko aukera gutxi eta zailtasun ugari daude (22-25)



IGAN

ETXEKO GAUZAK

tresneria, dekorazioa, opariak...

Ildefonso Gurrutxaga, 5
Tel.: 943 080374-080388



- > Odontologi tratamendu integralak
- > Hortz zuriketa
- > Endodontzia
- > Peridontzia
- > Estetika

COEG

HORTZ KLINIKA

Antonio Rafaniello

389 Koleg.

Enparan 8 - 1 Tel.: 943 81 67 36

- > Aho erreabilitazioa
- > Protesis finkoa
- > Protesis mugikorra
- > Koroak eta zubiak
- > Inplanteak



**SUKALDEKO ALTZARIAK
BAINUGELAK
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK**

PEREZ ARREGI, 9 Tfnoa. eta Faxa: 943 15 05 10

mugi
kirolak



Enparan kalea 8, Tel. 943 - 151004

Elkarrizketa.
Mikel Azkune
eta Eneko
Etxeberriari
(18-19)

Azaroak 25,
tratu txarren
aurka.
Datuak eta
ekitaldiak (26)



Juan Peñak
23. aldiz
korrituko du
Donostiako
maratoia (31)



Klik! Natatxa
Filmsen
'Bailara'
(36-38)

uzfarria

Jon Azpiazuk umetatik nahi zuen hegazkineko pilotua izan. AEBetan egin ditu lau urte titulua ateratzen; gaur egun Katalunian ari da ikasten

HEGAN EGITEKO AMETSA GAUZATZE BIDEAN



Jon Añanburu



Jon Azpiazu pilotu ikasketak egin dituen azpeitiarra. /I. A.

E etorkizun hurbilean izango duen ofizioa zuen umetako ametsa Jon Azpiazuk. Batzuk, umetan, suhiltzaile, polizia edo antzeko lanbideekin egiten dute amets. Jonek, berriz, hegazkineko pilotu izan nahi zuen. Eta baita lortu ere. Oso gutxik izaten dute umetan hain garbi gero zer egin nahi duten, zertan lan egingo luketen. Hala kontatzen du Jonek: "Nik hiru urte nituela, amaren ahizpa bat Ingalaterrara ezkondu zen, eta hegazkina hartu behar izan genuen hara joateko. Ordundik datorkit ofizio honetan jarduteko gogo". Duela bost urte amaitu zituen UBIko ikasketak, eta orduan hasi zen aereonautika ikasten. "Irakaslea galdezka hasi zen gelako denoi, ea zer ikasi nahi genuen; alegia, gure etorkizuneko lanbidea zein izatea gustatuko litzaigukeen galdezka. Nik informatikaren edo aereonautikaren artean banituen zalantzak. Telekomunikazioetan sartzen saiatzea ere pentsatu nuen, baina azkenean aereonautika egitea erabaki nuen". Beraz, umetako ametsa egia bihurtzen hasi zen Jon.

Baina aeronautikako ikasketak egiteko Euskal Herriatik kanpora joan behar izan zuen. Hasieran Madrilerara joan zen, eta gero Amerikako Estatu Batuetara, Arizonara hain zuzen ere. Han pasatu ditu Jonek azkeneko lau urteak. AEBetan dagoeneko pilotu ofizialaren titulua badu; "pilotu komertzial instrumentalaren titulua badut". Baina, European ezin du hegazkinik gidatu. "Hemen legedi desberdina dago, eta berez ezin ditut hegazkinak ukitu ere egin". Orain AEBetako ikasketak baliozko- ▶

» tzen ari da, Sabadellen (Katalunian). Babiliozko horretako ikasgai teorikoak amaitzen dituen arte ezin du hegazkin gidatu. "Hegazkinak gidatzen ez da ahazten, baina trebetasuna galtzen da. Bizikletan bezalakoxea da: sekula ez da ahazten, baina trebetasuna galdu egiten da. Ikasgai teorikoekin berehala amaitu nahi dut, berriro hegazkinak gidatzen hasteko".


Oraindik pilotu bezala lanean hasi ez den arren, lan ordutegiak lanbide hau asko baldintzatzen duela dio. "Erreleboetan edo zama garraioan lanean hasiz gero, gogorragoa da, gauzez egiten delako lan. Eta gauzez lan egitean gehiago nekatzen da. Bidaiarien hegazkinetan lan eginez gero, ardura handiko lana da, bidaiarien bizitza zure eskuetan dagoelako, nolabait esateko. Bestetik, estres askoko lana da; estresa sortzen du. Hegazkina aireratzeko unea oso estresantea izaten da, gauza asko batera egin behar izaten direlako.

“ Bidaiariekin lan egitea ardura handiko lana da, pertsona horien bizitza zure eskuetan dagoelako, nolabait esatearren ”

“ 2001eko irailaren 11ko gertaera hura nahiko gogorra izan zen nire laguntzentzat, batez ere afganiarrentzat ”

Gora iristean estresa asko jaisten da, baina berriro lurreratzearekin pentsatzen hasi behar da. Eguraldi txarra edo lurreratze toki gutxi badago, oraindik ere konplikatuagoa da, lurreratzea zailagoa egiten delako. Une horietan edozein akatsek ondorio larriak ekar ditzake. Baina lan hau baino lanbide gogorragoak egongo dira, jakina".

INFORMATIKOA. Beste ikasketa batzuk ere egin ditu Jonek. Hegazkinekin lotuta paraxutean saltatzeko titulua ere atera zuen. "Ikastaro hori *hobby* bezala egin nuen, ez titulazioa osatzeko". Hegazkinetan lanik lortuko ez balu-edo, informatikako ikastaroak ere egin zituen. "Badaezpada egin nintuen, hegazkinen munduan lana lortzea ez baita hain erraza". Nahiz eta ikasketa erabat desberdinak izan, badituzte antzekotasunak ere. "Informatika eta hegazkinen arloa osagarriak dira nolabait. Gaur egun



gero eta gehiago egiten da lan ordenagai-luekin, eta baita hegazkinen arloan ere. AEBetan orain bada beste moda bat: pilotu lizentzia atera ostean, segurtasuneko espezialitatea ateratzen du jende askok, istripuak ikertzeko eta antzeko gauzetarako". Ez da oso harrigarria, estatubatuarrak segurtasunarekin nolabait obsesionatuta bizi direlako. "Paranoia horretatik datorren moda da. Istripu asko gertatzen dira, eta istripu horiek ikertzeko adituak nahi dituzte, istripuak aztertu eta gero ondorioak ateratzeko. Ez da lanbiderik onena, zeuk ere paranoiko amaitu dezakezulako. Baina bestalde, pilotu hobea izaten laguntzen du, besteek egindako akatsetatik ikasten delako".


IRAILAK 11. 2001eko irailaren 11n ere AEBetan zen Jon. Goizeko 08:00etan klaserara joan zenean jakin zuen dena. "Nik zuek hemen ikusi zenituzten irudi berberak ikusi nituen. Izugarritzko *show*-a izan zen. Euskadi Irratitik ere deitu zidaten, elkarrizketa bat egiteko, baina ni ez nengoen New Yorken. Nahiz eta AEBetan egon, Azpeitian egotea bezala zen, dena telebistaz bizi izan nuelako". Gero hasi ziren komeriak. Eskola aste betez itxita egon zen, AEBetako Gobernuak hegazkinen bidaiak debekatu egin zituelako. Horrez gainera, Jonen hango lagunak ziren afganiar bat, libanoar bat, bi saudiarabiar, pakistandar bat, eta baita Pakistan, India eta inguruetan bizitako beste bat ere. Nahiko egun arraroak izan ziren Jonen lagunentzat. "Gertaera hura nahiko gogorra izan zen nire lagunentzat, batez ere afganiarrentzat. Horrelako zerbait gertatzen den bakoitzean beti, ekialde-hurbileko jendearen aurka jotzen dute. Gainera, afganiarra Meua Mohamed deitzen da. Izen hori edukitzeak ere ez zion batere lagundu. Dendatan eta zerbait erostera joaten zen bakoitzean, jedearen begiradak eta galderak jasan behar izaten zituen".

FBIren bisitak ere izan zituzten. "Gure unibertsitatera etorri ziren, eta sekulako miaketak egin zituzten. Interneteko sarbideak hartu zizkiguten, gure posta elektronikoa eta bisitatu genituen orrialdeak kontrolatu ahal izateko. Ikasleei ere galdeketa egin zizkieten, batez ere musulmanei. Ikasle internazionalak ere beraien paper guztiak aurkeztu behar izan zituzten, bisak, han bizitzeko baimenak eta abar. Pelikuletako antzekoa izan zen".

Orain, berriz, Sabadellen da, bere ikasketak amaitzen. Zorte apur batekin, otsailean amaituko ditu ikasgai teorikoak. Gero praktika bakarrik faltako zaio: alegia, hegazkinarekin hegan egitea. Umetako ametsa beteko du. ●



Jon Azpiazu, AEBetan pilotu ikasketak egiten ari zenean. / JON AZPIAZU



Jon Azpiazu hegazkin baten kabinan, hegaldi batean. / JON AZPIAZU

amuko zubitik Aitor Aranguren

AUTOKRITIKORIK GABEKO EGUNA

Ez da giro. Bazter guztiak tertuliano, kritikoa eta kolaboratzailez josita daude. Eta hala bedi aniztasunaren alde, nahiz denetik entzun eta irakurtzen dugun eta batzuekin sekula ohituko ez garen.

Bada egun bat, irailean, bereziki deigarria egiten zaidana: Autorik Gabeko Eguna. Ez eguna beragatik, honek sortarazten dituen iriztiengatik baizik. Iritzi edo kritika negatiboak, jakina.

Faltsukeriarik ez! Kotxez beteriko gizarte hau denon artean eraiki dugu. Ezagutzen ditut kafe bat hartzeko 200 metro autoz egiten dituzten hamaika gazte, bi autoren jabea den sasiekologistaren bat, autobusa inoiz zapaltzen ez duen asko eta rallyak antolatzen dituen ikastetxerik ere; eta, gainera, EAEN biztanleko auto kopuru handienetakoa duen herrian bizi gara.

Ez da giro. Autorik Gabeko Eguna antolatzen denean antolatzen delako, eta ezer egi-

ten ez bada ezer egiten ez delako. Edozein kasutan, iritzi kritikoak nonnahi azaltzen dira. Baina, hori bai, inoiz autokritikarik ere egin gabe.

Aurten, lehenengo aldiz, ekintza ezberdinak antolatu zituen Azpeitiko Udalak bi egunetan zehar, eta, Udalarekin bat eginda, bai ideiak proposatzen eta horiek gauzatzen, herritar talde batek jardun du. Herritar talde horrek, gainera, urtean zehar mugikortasunaren esparrua lantzen dihardu, era positiboan eta eraikitzailean; ondorioz, errespetu handiena merezi dute.

Ez zutela eragin handirik izan ekintzek? Batzuegan bai, seguru. Datorren urtean hobeto, eta hurrengoan askoz ere hobeto aterako da. Edo zer uste dugu bada, denok egun batetik bestera maiteminduko garela bizikleta eta autobusekin; edo hankak ibiltzeko direla konturatuko garela?

Bruum, Bruum! Mok-Mok!

azketako ude Kepa Susperregi

ETORKIZUNARI AURPEGIA EMATEN

Hautsak harrotu eta harridura sortu zuen hainbat eliztarren artean aurreko hilabeteetan gure arteko egunkari batean agertu zen albiste batek. Liturgian egiten den zenbait gehiegikeria aipatzen omen da prestatzen ari diren Argibide edo agiri baten zirriborroan.

37 gehiegikeri izendatzen omen dira bertan, eta aurretik aipatutako artikuluan horietako batzuk agertzen dira. Guztien artean, nire inguruan haserre piztu eta gehien komentatu dena: neskak meza laguntzeko duten debekua oroitarazten duena.

Apaizen urritasuna dela-eta zenbait eliztarrei emandako egitekoa, ardura, ez omen da onartzen aipatutako zirriborroan.

Itsua izango ginatke gure arteko eliztarrek egiten duten lana ikusi eta onartuko ez bage-nu. Duela urte pare bat egindako inkesta baten arabera, 650 bat lagun dira gure bailaran eliz-lanetan parte hartzen dutenak. Eta itsua-

go oraindik emakumeek eliz-lanetan duten garrantzia onartuko ez bage-nu. Gure bailara-ko parroketako talde kideen artean %84 emakumezkoak dira eta.

Gure begirada zabalduz gero, beste hainbeste ikusiko genuke. Erlijosoen artean, gizonezko bakoitzeko hiru emakumeak dira; eta misiolarien artean, berriz, gizon bakoitzeko lau emakumezkoak.

Jakin badakit edozein erakundek bere barne funtzionamendua arautu behar izaten duela, jakina. Baina ez dut uste ateak ixten saiatzea etorkizuna bideratzeko aukera egokiena denik. Gure artean, Elizbarrutiko egitaraua osatzen duten helburuetako bat laikoei eginkizun eta ardurak ematea da, baita zuzendaritza lanetan ere. Gizonezkoen eta emakumeen artean inolako berezikeriarik egin gabe. Etorkizunari erantzukizunez aurpegia emateko bidea dugu.

hiruko txikiyen

Iban Arregi

1 BAINA ASKO. “Hire ametsen bidetik segiko duen jenderik ez duk faltako”, idatzi zitzaion orriotan Beñat Arrueri, hura hil zenean, orain bi urte. “Ez zagok erraza”, esan beharko zaio orain. Badelako haren ametsen bidetik dabilenik, baina... Badelako “Euskal Herri euskalduna” egin nahian dabilenik, baina... *Bainaasko* bazterretan. Edo begiratu, esaterako, Mikel Azkuneri eta Eneko Etxeberriari. Arzalluzek egungo egoerari, Espainiak ezarri nahi duen “salbuespen egoera” hotsegiten dio orain.

2 BIDEA. “Ez zagok erraza”, baina ari gara aurrera egiten, euskalgintza (ere) ari da bidea egiten. Eta bide hori (ere) moztu nahi dute. Azpeitian bertan, Uztarrria eta Baite (ere), beren txikian, ari dira bidea egiten, ari dira herri-proiektu berriak lantzen, baten bat *Berria*-rekin. Ez ote da inor aterako bide hori (ere) moztu nahian. Bidea bera egitea bada gaur egun nahikoa borroka, baina borrokatu ere egin behar bidea egiteko...

3 BABESA. “Babesa” izan da egunotan gehien aditu den hitza. Babesa. Baina babes hori landu egin beharko da, ekimen zehatzak mahai gainean jarri. Eta “Euskal Herri euskalduna” bilatzen duten proiektuak lagundu egin beharko dira, (zenbaiten) mamu guztien gainetik eta mamu guztien azpitik; bultzatu egin beharko dira, babestu. Azpeitian ere izango da aukerarik. Eta Espainiak ezarritako “salbuespen egoera” bere osoan aztertu beharko da. *Kafe*-rena ere, adibidez, ez delako egoera baltete normala (bi urte eta erdi kartzelan, epaiketaren zain), Espainian *salbu*.



ZINE KLUBA. Aurten ere beraien zine emaldiei ekin die, jendea eta herritarrak zinera joatera animatuz eta bultzatuz. Merkatuko filmerik onenetakoak ikusteko aukera eskainiz.



TRATUA. Bi azpeitiarrek pasatu behar izan duten tratua, atxilotuak izan direlako, beste zazpi pertsonekin batera (gero askatuak), euskalgintzaren aurka Del Olmo epaileak egin-dako beste operazio batean.



ARGIRIK EZ. Herriko autobus geltokietan argiaren lanparak daude, baina inoiz ez dira piztuta egoten. Orduan zertarako daude geltokietan argi lanparak gero itzalita egongo badi-ra?

uztarria.com-eko albistiei erantzunez

GAIA: Uztarria Kultur Koordinadoraren webguneko 'Albisteak erantzunez' atalean euskalgintzaren aurka Guardia Zibilak egin-dako azken operazioaren inguruan aritu dira. Hona iritzi batzuk

Mugitzen hasi beharra

Gaurko poza bihar berriro amorru eta etsipen ez bihurtzeko mugitzen hasi behar dugu denok: erakundeek (Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundia, udalak...) baina gehienbat herritarrok. Franco-ren garaian gure gurasoek euskararen alde lan egin zuten eta guk gaur egun ezer gutxi egiten dugu. Euskarak guztiok batzen gaitu, baina batu gaitzen zerbait egiteko, ez aldarrikapenak egiteko bakarrik.

Azkoittiarra

bestela zertarako daude? Beraiek egiten ez dutenez, herriko eragileek eta herritarrek hartu beharko dugu lekukoa. Ondorioz, Herriaren duintasunagatik, erasoei aurre egin diezaiogun, Euskal Herria aurrera!

Eta instituzioek?

Lagunak kalean izatea pozgarria da

Gure lagunak kalean izatea pozgarria da, benetan pozgarria, baina egoera, oro har, antzekoa da. Euskalgintzak aurrera egiten segitzen badu, gure egitura mediatiko-kulturalak sortzen eta sendotzen segitzen badugu, hor egongo gara gero ere, Guardia Zibila etxera noiz sartuko zain. Beraz, larunbateko manifestazioko galderek hor segitzen dute: nork babestuko gaitu? Nola babestuko dugu gure burua? Nola normalizatu eta eraiki gure Hizkuntza eta Herria? Noizbait egingo al dugu benetan hain estrategikoak diren proiektuen alde, batere zalantzarik gabe, sendo?

Iban

“Gaurko poza bihar berriro amorru eta etsipen ez bihurtzeko mugitzen hasi behar dugu denok”

Azkoittiarra

“Herritarrok exijitu behar dugu gure instituzioek babes gaitzaten, bestela zertarako daude?”

Eta instituzioek?

“Gabonetan herria argizatzen izugarritzko dirutza gastatzen da”

Iban

Nork defenditzen gaitu?

Nork defenditzen gaitu horrelako erasoan aurrean? Eusko Jaurlaritzak zer egiten du eraso hauen aurrean? Eusko Jaurlaritzak ETaren aurka dituen arma guztiak erabiltzen ditu. Era berean, estatuen erasoaldia ere kritikatzan dute. Baina zer egiten dute? Ezer ez. Beraiek ez dau-de salaketak egiteko. Beraiek herritarren eskubideak babesteko daude. Baina berriro koldarkeriz Madrilan aurrean... Herritarrok exijitu behar dugu gure instituzioek babes gaitzaten,

akulue



Leire Ostolaza

KOPETAK
KOPETAKIN
TOPE


Lehengo batean, telebistan sarri egin ohi dudun zapping horietako batean, Kaito telebistan ahari jokoa ikusteko parada izan nuen.

Bi aharien nagusiek han zekartzaten ahariak, begiak estalita, ahariak aurrez aurre zuten patu krudela ikusterik nahiko ez balute bezala. Jarri zituzten zegokien lekuan, aurrez aurre, eta estalkia kendu ondoren han hasi ziren beren ar senari jarraiki, elkarri kolpeka; nor nori gailenduko. Eta dozenerdigarren kolpean-edo, bietan ahulenaren belaunak kloxx egin, eta zutik berehala jarri bazen ere, ez zuen aurrera berriz egiteko grina handiegirik erakusten. Adar ondoetatik odola zeriola, burua makurtu eta irabazlearen buru azpian kokatu zuen berea, mendean hartu zuela onartuz eta erakutsiz. Besteak ere ez zuen jarraitzeko asmorik, bai baitzekien aurkariari nagusitu zitzaioela, eta bere ohorea salbu zela. Ahari jabeek ordea, han zereginik ez zegoela ikusi arren, berriro botatzen zituzten elkarren aurka, jokoa motz geratu baizitzaien; azkenean, etsi eta erretiratu egin zituzten ahariak, plazaren erditik bazter bateraino.

Ahari galtzailearen bizitzako azken eguna izango zen hura noski... A zer krudelkeria!

galdeiez

Zer iruditzen zaizu bankuko, udaletxeko, liburutegiko, igerilekuko... ordutegia?



zer diyo?

FRONTOI TXIKIKO
ILUSIOA

Ez da izango herrian dugun arazo larriena, baina ezin diogu aukera honi alde egiten utzi. Astea joan eta astea etorri, eta frontoi txikia umez gainezka. Zoritxarrez, neskarik ez. Ehun eta berrogei inguru ba omen dira intentzio ikaragarrian ari direnak eta keinuetan nahiz maldizioetan antzematen da telebistaren eragina.

Horiek denak gobernatzea ez da lan erraza, eta nahia sarri hutsala. Umeek adinako intentzioa jartzen dute haien ardura duten Ilunbe Elkarteak, baina, nire ustetan, ez da nahikoa. Beste azpiegitura klase batek behar du, pilotari berri horien ilusioa gal ez dadin. Urteak darमतate *Keuttin* eta konpainiak egunero-egunero lanean jo-ta-sua, sarri hain esker txarrekoa den ihardunean. Azpiegiturarik gabeko ahalegina da, ordea. Egiten duten lan ikaragarria estimatzeaz gain, hona hainbat ideia bakarren bat baliokoa izango delakoan:

- Diru publikoa, udalarena gutxienez, nahita nahiezkoa da. Nahiz eta jakin laguntzak jaso jasotzen direla, ez da nahikoa. Pertsona batek gutxienez erdi-liberaturik beharko luke lan hori egiteko. Entrenamenduak antolatu, txapelketak martxan jarri, materiala, fitxak eta abar. Aukera hori, jakina, orain arte hainbesteko ahalegina egin dutenen eskutan utzi beharko litzateke.

- Teknikazio aldetik ere asko da egin daitekeena. Takoak botatzen bai baina nola jarri behar dituzten justu-justu badakite ere, kirolari izaten ikasi beharko lukete hurrek, batik bat adin batek aurrera: kantxatik kanpo entrenamendutan zer landu, elikadura nola zaindu, lesioak zergatik

Ana Txapartegi

(langilea)

“Niri ez didate eragin handirik egiten ordutegi horiek.

Niretzako sekula ez da oztopo bat izan erakunde publikoek duten ordutegia. Behin ere ez zait gertatu joan ezinik gelditzea, ziurrenik ez naizelako askotan joaten”.

Aitor Goenaga

(langilea)

“Egia esan, ez dute oso ordutegi ona. Arratsaldetan-eta irekita egon beharko lukete, zerbitzu publikoak diren unetik. Askotan,

sortzen diren, irabaztean nola gozatu eta galtzean ez traumatizatzen ikasi... Eta berriro, eta abar.

- Gurasok kuotak ordaindu beharko genituzke. Edo ez al dugu ordaitzen gure neska-mutikok dantzara, marrazkira, judora edo esate baterako flauta jotzen ikastera bidaltzen ditugunean? Honek seriotasuna emango lioke ilusioari, eta aurrekontu duina ahalbideratuko luke.

Iritziok eraginik izatea zaila da. Udaletxean oso eroso daude gaur egungo egoerarekin. Herrian kirol talde asko dagoela eta aurrekontuak ez duela gehiegi ematen erantzungo digute, Ilunpekoek, kirola ikaragarri maite dutelako, orain arte egin dutela eta ahal duten bitartean segiko dutela argudiatuko dute, eta guraso askok nahiago izango du hamar-hamabost euro horiek beste zerbaitetan gastatu. Beraz itxaropen handirik ez gauzak aurrerantzean aldatzeko.

Pilotari bat profesional mailara heltzen denean, bere enpresak prestakuntzako urte luzeetan gastatu diren dirutzak ordaindu beharko litzuzke, baina hau ere utopiaren lur goxoetan murgiltzea litzateke. Dena den, hori ez da arazoa. Kontua da gazte piloa kirol zoragarri honen bidetik joan daitezen laguntzeko modua topatu behar dugula, eta horretarako udaletxe, tekniko eta gurasoon bultzada behar dela.

Gurdi astunari zenbat eta gehiagok bultzatu, hobeto.

Koldo Aldalur (kazetaria)

eguerdian pixka bat berandutuz gero, itxita topatzen ditut, eta hurrengo egunean joan behar izaten dut. Udaletxera edo bankura joatea tokatzen bazait, eguerdian presaka ibili behar izaten dut, eta bazkalteko astia ere justu izaten dut”.

Itziar Elias
(dendaria)

“Nire iritziz banketxeek arratsaldetan ere ireki egin beharko lukete. Dendariok ordutegi mugatua izaten dugu, eta arratsaldetan irekita egongo balira askoz hobeto ibiliko ginatke bankura-eta joateko”.

**UZTARRIAREN
WEB ORRIKO
INKESTA**

1. GALDERA: Behobia-Donostia lasterketa probarako entrenatzen ari al zara?

- Bai: %36
- Ez: %64

Izaskun Zendoia
(ikaslea)



“Liburutegiak ikasleen ordutegira gehiago egokitu beharko luke. La-

runbat goizetan gutxienez irekita egon beharko luke. Ni larunbat goizetan askotan joango nintzateke liburutegira, ikastera, baina itxita egoten da. Abuztuan ere irekita egon beharko luke, ikasle askok edukitzen ditugulako irailiko azterketak. Liburutegiak gehiago egokitu beharko luke ikasleen ordutegira, azken finean guk erabiltzen ditugulako gehiena”.

Loli Aiertza
(langilea)



“Arratsaldetan ere irekita egon beharko lukete. Ni neu ez

naiz asko joaten horrelako erakunde eta lekuetara. Baina batzuetan nire ahizparen gestioak egitera joan behar izan dut, berak ezin izaten duelako joan. Ahizpak libre dituen orduetan itxita egoten dira eta bere ordeztan joan behar izaten dut. Langileei egokitzen zaien ordutegia izan beharko lukete era honetako lekuek, era horretan denek joateko aukera izango dute”.

kanpoko begiradie

**XAPO
MAITEOK:**



Iñigo Aranbarri (idazlea)

Azpeitia eta azpeitiarrok nola ikusten gaituen idazteko eskatu dio Uztarriak Aranbarri. Hemen haren ikuspuntua:

Azpeitiko seme zen Ildfonso Gurutxagari esker dakigu elizaren patronatuaren inguruan izandako istiluak tarteko, Iruñeko Artzapezpikuak azpeitiar guztiak eskomikatu zituela 1392an. Bai, *xapo* maiteok, elizaren fededunen elkartetik bereziak izan zinetelako zarete zapo, inpernuko txikitoaren morroi. Euskal Herrian, badira gutxienez beste bi zapoerri ere: Durango da bat eta Goizueta bestea. Herexek izan ziren batean, sorginak bestean. Horra hiru zapoerri Euskal Herriaren gozagarri.

Baino nago zuek, herri baino, kontinentea izan zaretela beti *handikaldekoentzat*. Loiolatarrak zarete, nuarbetarrak, oñaztarrak, Elosiagakoak, Arauntzakoak, Lasakoak, landetarrak, kaletarrak... eta beren Ibarretxe plana aurrera atera arte, baita urrestildarrak ere. Bada hainbeste herri, etnia, nazio batzen dituen kontinenterik munduan?

Baina kontinentea ere txiki, eta mundua bera hartzea erabaki zuen bere armada beltzarekin ama azkoitiarra izanagatik, azpeitiar jator jaiotzea erabaki zuen *gure patro handiak*.

Don izan zarete gure aldean, eta saiatu zarete erakusten. Golden Gateren pare, mutur batetik bestea ikusten ez den zubia duzue; eta ingeniari edo ekonomisten ordeztan, bertsolariak atera dituen unibertsitatea. Zezen-plaza mo-

numental, munduan berbena saio gehien eman duen taldea, eta asmo txarrenez egina, larrialdian bagara, azkoitiarrok sartzeko La Santéren adinako kartzela. Agintariak, PRIkoak izatea mereziko luketenak. Kirolean, berriz, Amazonia osoa eraisteko moduko aizkolariak, sokatiralariak, gizaneurrian, inongo futbolistik onena, eta orain, guk Curro Romero bat ateratzera, baita pilotariak ere.

Jaiak, Donostiako guztiak eta gehiago. Ez da munduan beste herririk izango inauteri igandea ospatzeko markesen pare janzten denik. Eta badakit ez duzuela nahita egiten, berez ateratzen zaizuela. Halakoak zarete. Zuek, gizonemakume prestuak; gu, *barriketako urak* gizajotutako *xakel xanoak*. Eta xanoak garelako erabaki zenuten orduko Enrique Villarren laguntzaz 1930ean Txalintxo zeuontzat hartzea...

Izan ere, gure aldean beti eman duzue gipuzkoar jatorren irudia. Homologatzen erraza den ahoskera duzue. Gu, aldiz, nora goaz gure xexexehonekin. Esan dizuet, zuek kontinentea zarete; gu, berriz, zer gara mendi artean itotako halako bizkaitar moduko basakristau ojuzaleen tribu bat besterik.

Handi hotsak liluratuta joan izan da azkoitiarra zuen Donostia-Txikira bizitzera. Zuek ez bezala.

Pats gozotan ohitua, urteak dira zapoari inpernu usainak joan zaizkiola. Harroa zaio xakelari errekan xapoaren kli-klua. Haizea zarete. Era manezinak. Baina zuerik gabe, ezin bizi.

Egixe. Niri esan.

“ Beste azpiegitura klase batek behar du pilotari berri horien ilusia gal ez dadin”

“ Gazte piloa kirol zoragarri honen bidetik joan daitezen laguntzeko modua topatu behar dugu”

Koldo Aldalur

“ Elizaren fededunen elkartetik bereziak izan zinetelako zarete zapo, inpernuko txikitoaren morroi”

“ Pats gozotan ohitua, urteak dira zapoari inpernu usainak joan zaizkiola”

Iñigo Aranbarri

hausnartzen

GAIA: 'Euskararen normalizazioa Azpeitian'. Euskaraz bizi al gara herrian? Udalak bakarrik gidatu behar al du plangintza? Zer paper jokatu behar du euskalgintzak?...

Oharra: hurrengo zenbakietan ere eztabaida hau sartu nahi dugu Uztarrarian; idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO PLANEAN ELKARLANA BENETAN, EZ BERRIKETAN

Joan den urte hasieran Azpeitian izan nintzen hitzaldi batean, partaide gisa, Baite Euskara Elkarteak antolatuta. Euskararen normalizazioarekin zerikusia duten prozesuez eta ekimenez mintzatu ginen, eta Azpeitiko egoerak ere irten zuen mahai gainera. Ni neu tolosarra naiz, Tolosako Udaleko euskara teknikaria, baina ezagutzen dut Azpeitia, familia dudalako bertan, eta buelta batzuk ere, ordu txiki eta ez hain txikietan, emandakoa naizelako herrian. Azpeitian jende gehienak euskaraz egitea ez zait harrigarria egiten, baina bestelakorik ere sumatu izan dut, nire harridurarako hasieran, beste uste bat bainekuan.

Hitzaldi hartan esan zidatenez, besteak beste, euskararen normalizazioa lortu nahian sortu zen Baite orain dela bi urte. Nik uste egundoko aukera dagoela Azpeitian bide horretan pauso handiak emateko, primerako lehengaia duzuela iruditzen zait hizkuntzari dagokionean, beti ere gauzak egoki eginez gero.

Neure hausnarketa plazaratu aurretik, bi izen arraroren argibideak ematera natorkizue:

- Bai Euskarari Akordioa: Euskararen Kontseiluarren babespean Tolosaldean duela hiruzpalau urtetik hona bideratzen ari garen plan estrategikoa da, Tolosaldeko ikastetxe, Galtzaundi Euskara Taldea, sindikatu, enpresari, alderdi politiko eta abarrez osatutako Jarraipen Batzordearen gidaritzapean.

- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN): Eusko Jaurlaritzak onartutako plan nagusia eskualde edota herrietan aurrera eramateko, Tolosako Udala bideratzen ari dena, Bai Euskarari Akordioan parte hartzen duen Jarraipen Batzordeko kide berberekin.

Euskararen egoera, oro har, kezkarria iruditzen zait, eta Xabier Arzalluzek Tolosan kultur etxean emandako hitzaldi batean esan zuen bezala, "euskararen gaian aurrera ez egitea atzera egitea da". Guztiz bat nator adierazpen horrekin.

Luxuetarako ez den egoera batean, ahal dela egoera on eta txarretan —baina txarretan gehiago—, elkarlana ezinbestekoa da aurrera egiteko, taxuzko hizkuntza politika bideratzeko.

HIRU ZUTABE BEHAR. Egoki bizirauteko elkarlan horrek hiru zutabe behar ditu: gizarte eragileena, euskalgintzarena eta politikoa. Zergatik?

- Hizkuntza normalkuntza gizarte osoak bideratzen duen aldaketa soziokulturala da; hau da, —gure kasuan, Tolosaldeko— herritarren egitasmo sozial, ekonomiko eta politiko guztien bultzadarekin uztartuta dagoena. Hortaz, gizarte eragileen ordezkariak parte hartze zuzena izan behar du prozesu horren gidaritzan. Norberak

ezin du bere hizkuntza-portaera nonahi eta nolanahi aldatu, bera mugitzen den guneetan ere aldatzen ez badute. Horretarako, gizarte eragileek erabakiguneetan egon behar dute, hizkuntza politikaz erabakitzen, ez lorontzi moduan.

- Euskalgintzak (ikastetxeak, euskara taldeak, euskarazko komunikabideak...) bermatu behar du hizkuntzaren normalkuntza prozesuak euskararen beharrak hartuko dituela aintzat. Horrengatik egon behar du euskalgintzak prozesuaren gidaritzan, euskararen beharren arabera joka dezagun guztiok, eta ez beste interes batzuen arabera. Gainera, euskalgintzak prozesuaren zuzendaritzan egoteko zilegitasun osoa du: batetik, bertako erakundeen ogi-

bidea delako, ordu asko eskaintzen dizkiotelako euskarari —baita musutruk ere—, etorkizun oparoa izan dezan; bestetik, ez duelako logikarik euskararen aldeko ekimen bat (Bai Euskarari Akordioa, EBPN...) euskaltzaleak albo batera utzita abiatzea edota behar eta merezitako leku eta ahalmenik gabe.

- Tokian tokiko ordezkari politikoen ere prozesuaren gidaritzan egon behar dute, haiek direlako herriak aukeratutako ordezkariak eta zeresan garrantzitsua izan behar dutelako prozesu honetan. Politikoen kudeatzen dituzte, prozesuak aurrera egin dezan, beharrezkoak diren hainbat baliabide ekonomiko eta zenbait giza baliabide ere, hortaz, ezinbestekoa da beren parte hartzea.

Orain artean aipatutakoagatik, EBPNk eta Bai Euskarari Akordioak prozesu berean bat egitea iruditzen zait egokiena. Bide hori ari gara jorratzen Tolosaldean, Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordea eta EBPNren Aholku batzordea kide berberetzat baitugu. Kostatuta, baina elkarren kontra aritu ordez, elkarrekin eta elkarlanean aritzea erabaki dugu. Euskaldunen arteko kontua izateko, miraria ere badirudi, ezta?

Bukatzeko, zuei aholku xume bat ematera ausartuko naiz: bi planak prozesu berean aurrera eramatea da bidea. EBPN eta Bai Euskarari elkarrekin eta elkarlanean, hiru hankako zuzendaritzapean. Azpeitian egin ezin den gauzarik ba al dago? Aurrera eraginkor egitekotan, euskarak "bere Lizarra-Garazi" behar du, Kike Amonarriz soziolinguista eta umoregilearen esanetan, eta bide batez, gusturago biziko gara gure herrietan, adiskideago, samurrago; eta hori, herritarrok ere behar dugu, ez euskarak bakarrik.

“Elkarlanak hiru zutabe behar ditu: gizarte eragileena, euskalgintzarena eta politikoa”

“Aholku bat Azpeitiari: eraman EBPN eta Bai Euskarari Akordioa prozesu berean”

Iñaki Azaldegi (Tolosako Udaleko euskara teknikaria)



BAKOITZARI BEREA

Nahiz azken urteetan Donostiako Amara auzoan bizi, Azpeitian hazi, hezi eta lan egiten duen azpeitiar bati, Azpeitian euskaraz bizi al garen ala ez galdetzen diotenean, ikasle bati azterketako lehen galdera ikusi eta bezperan erreparatutako gaia dela ohartzean islatzen zaion irrifartxo agertzen zait ezpainetan.

Senitartekoaz gain hainbat esparru ditugu ia eguneko 24 orduak euskaraz bizi ahal izateko, Euskal Herriko hiriburu euskaldunena dela diotenaren Donostiarekin konparatzen baldin badugu, behintzat. Euskararen erabilpen horren xehetasunetan ez naiz ariko, ez baita nire lana eta horretarako baitaude teknikari eta ikerlariak. Hori alde nabarmena izanik, esan behar kantitatean adina erraparatu beharko genukeela kalitatean. Poeta frantsesari jarraituz, Umbrak sarri aipatzen duen bezala “sintaxia arimaren gaitasun bat da”, hitzak bata bestearen ondoren zuzen taxutzeko “sena”; alegia, euskara erabiltzen dutenek izena, izenordea, izen laguna, aditza eta bestelakoak txukun ilaran eta bakoitza bere lekuan jartzeko duten gaitasuna. Horretan ere oinarritzen dut galdera horri ematen diodan baiezkhoa. Ez dezazuela hau esentzialismo estu bat bezala hartu, baina aipatu gabe ez dut uzterik nahi izan.

“Gure ahulezien eta beharren agerleku izango da Aholku Batzordea, emaitzena baino gehiago, eta, zentzu horretan, topaleku aproposa iruditzen zait”

Eta zer demontre egin dezake enpresa batek udalaren deialdiari jarraituz Euskara Biziberritzeko Plana burutzen ari den taldean parte hartuz? Ez al daude horretarako udal teknikariak, ikastolak, kultur eragileak eta hainbat erakunde? Bai noski, eta dudarik ez dut gu baino hobeto prestatuta daudela lan horretarako. Hori horrela aitortuz, esan behar, produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bezala garbi dugula gure bezero, akzionista eta langileei zor dizkiogun emaitzez gain, inguruko gizartean ere txertatuak gaudela, eta beraiekiko konpromisoa erretorika hutsa ez dela agertu dugu partaidetza honekin.

TOPALEKUA. Nik gure enpresan euskararen erabilpenaren datu batzuk bakarrik azalduko ditut: bat banakako elkarlanaren %90 euskara erabiliz moldatzen badugu ere, talde lanetan batez beste hori %20ra gutxitzen da, eta bezeroekiko harremanez ari bagara, berriz, frantsesa edo eta ingelesa erabilgarriagoak ditugu, eta, beraz, ez dut uste inorentzako eredugarri izan gaitzkeenik. Dena den, enpresa barneko agiri nagusiak (Enpresa Egitasmoa, urteroko hitzarmena...) bi hizkuntzatan azaltzen ditugu —euskaraz eta gaztelaniaz—, eta zenbait lanetarako erabiltzen dugun softwarea ere etxean euskaraz prestatutakoa da. Horretaz gain, gure emaitzena baino gehiago gure ahulezien eta beharren agerleku izango dela uste dugu partaidetza hartu berri dugun Aholku Batzorde hau. Zentzu horretan topaleku aproposa iruditzen zait EBPnko Aholku Batzordea eta bakoitzak geure neurrian gogo onenez azalduko ditugu gure kezka handiak eta aurrerapen apalak.

Batzorde horretan herriko zenbait eragileren ordezkariak gaude (dendariak, ikastetxeak, profesionalak, kultur taldeak, enpresak, udal teknikariak...). Garbi eduki behar dugu eragile horietako bakoitzak bere zeregin nagusia duela: enpresek produktu eta zerbitzuak eskaini eta aberastasuna sortu, dendariak modu eroso eta atseginean salgaiak gure esku jarri, antzerki taldeek ditugun aisaldietan gure espirituak ase, ikastetxeek gure seme-alabek hezi eta gizarteratzeko behar dituzten jakintza gaitasunak eman... Alegia, herri eragileek sortu, bultzatu, eragin, berritu eta asmatu egin behar dute.

Helburu horiek betetzea da eragile horien lehen erronka eta eginbeharra, eta betetzen dituzten neurrian Azpeitian euskaraz bizitzen jarraitzeko aukera izango dugu bertakook eta baita bertara etortzen direnek ere.

Udal, Foru edo eta Jaurlaritzako erakundeek, berriz, herritarren kezka eta beharrei aurre egiteko legediak sortu eta bitartekoak zuzen kudeatu behar dituzte. Sortze eta berritze lanetan, instituzioak herri-eragileen atzetik ibiliko dira beti, ez baitira, gehienetan behintzat, horretarako gai. Baina, bestalde, herri-eragileetako partaideei zinegotzi edota bestelako agintari lanetan murgiltzeko grina sartzen zaienean aurrez aipaturiko betebeharrak nagusiak burutzeko bidetik okertu daitezke, eta hori ez da inorentzako komenigarri.

Beraz, zinegotzi eta teknikariak bere lanetan, herri-eragileak sortze eta berrikuntza eragiketetan eta guzti-guztiok EBPnko batzordean elkarlanean.

Xabier Goenaga (EBPNko Aholku Batzordean Samic enpresako partaidea)

zer diyo?

Fernando Morillok Euskadi Saria irabazi du haur eta gazte literaturan, eta Aitor Arana idazle legazpiarrak —Urrestillan bizi da— ondo ezagutzen du hura, Merino azkoitiarra eta hirurak literatur solasaldietan biltzen direlako. Morillori buruz idatzi du

EUSKADI AZPEITIAN

Duela hiruzpalau urte, Juankarren eta neronen ekimenez, telefonoz deitu genien Azkoiti-Azpeitietako idazleei, afari bat egin eta elkar pixka bat ezagutzeko asmoz. Egundoko porrota izan zen ekimena. Hamar idazlek eman genuen izena, eta hiru bakarrik elkartu ginen. Lotsa ere ematen zigun hamar laguntzat gordetako mahai zabalean hiru txoritxo ikusteak, jateke osoa afaltiarrez bete-bete eginda zegoenean. Oker ulertzeren bat izan zen topalekuan, edo elkar ez ezagutzeak berak galarazi zigun topatzea... Ez dakit.

Kontua da Azkoitiko Juankar Merino, Azpeitiko Fernando Morillo eta hirurok elkartu ginea eta hantxe, mahai zabal haren mutur batean afalduz, gerora urtetako adiskidetasuna izango zena hasi zela. Astero-astero elkartzeari ekin genion, horrela, Azpeitiko Urola Express tabernan eta, hasieran bi herriotako idazleak elkartzeko ahalegin fruitugabea izan zena, literaturari buruzko "gehienbat Euskal Herrikoaz aritzen garela" eta bizitzaren gorabeheri buruzko elkarriketa eta eztabaida leku bihurtu zen.

Juankar, Fernando eta hirurok oso pertsona ezberdinak gara, literaturaz gain batzen gaituzten hainbat gauza dauden arren. Fernando eta biok idazletza dugu lanbide eta Juankarrek enpresa batean lan egiten du: hirurok berdin-berdin maite dugu idaztea. Ez gara beti ados egoten; hala balitz gure topaketek ez lukete mereziko. Baina ados gaude funtsezko gauza askotan, eta horrek gure topaketa hauek merezi izatea dakar. Geure historiak elkarri

“ Fernando Morillo joan zenetik lehenbizikoz etorri denean, berri on eta distiratsu batekin etorri zaigu”

“ Juankar Merino, Fernando eta hirurok ados gaude funtsezko gauza askotan eta horrek gure topaketa hauek merezi izatea dakar”

kontatuz, editore hau edo hura goxatuz nahiz larrutuz, literatur mundu zail honetan bizi izaten dugunaren berri ematen diogu elkarri. Asko dira, egia esan, gure artean geratu diren euskal literaturari buruzko sekretuak.

ANIMOA. Baina, literaturaz ari garela, geure buruari egin diogun mesederik handiena, idazten jarraitzeko elkarri eman diogun animoa da, zalantzarik gabe. Aldian aldiko geure proiektuen berri eman dugu beti Urola Expresseko gure taldetxoan, gehienetan Juankarrek kafea eta puru txikia, Fernandok ura eta nik neuk kafesnea hartu bitartean. Geure argitalpen berriak oparitu dizkiogu hasierahasieratik elkarri, guztion pozak, penak eta nekeak entzun eta eztabaidatu bitartean.

Aurten, baina, Fernando kanpora joan da. Bikote bihurtu da hirukotea, edo aldikako hirukote. Elkartzen ahalegintzen jarraitzen dugu, hala ere. Joan zenetik lehenbizikoz etorri denean, berri on eder eta distiratsu batekin etorri zaigu: Euskadi Saria jaso du *Izar-malkoak* lanarengatik. Merezimendu osoz eta hiruron pozerako; baita gure inguruko beste jende askoren pozerako ere. Nahikoa da Fernandoren eta Juankarren testuren bat irakurtzea, Azpeiti-Azkoitietan gutxienez bi idazle on dauzkagula ikusteko. Euskadi mailan jakingo da, honenbestez. Zorionak, Fernan, eta ongi etorri Azpeitira, Euskadi.

Aitor Arana (idazlea)

zuk ere eman ezazu albistea, agenda, botoa, iritzia...; hartu parte Azpeitiko atayen, erraza da

www.uztarria.com

BERTAKO HARAGIA... ...GURE HARATEGIAN

Beloki
 ale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 82
AZKOITIA
 Jose Artetxe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA

PATXO

EDUARDO BERASATEGUI
 Harategi eta Zerritegia
 Euskal Herriko Haragirik Onenak
 San Inazio Kaleko 12an
 Urrut. 943 81 14 98

MATXIN

bertako okela
HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA

Harategia Odriozola
 Harategi
 Especializatua
 Arana Kalea, 14
 Urrut.: 943 81 1015

J.B. San Sebastián

 HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA
 FORU HIBILBIDEA, 4
 TFNOA 81 15 94
AZPEITIA

ZABALA HARATEGIA

 KALITATEZKO
 HARAGIA
 BUSTINZURIKO ERREBALA. 1
 TFONOA.: 943 811671

EUSKAL OKELA
 EUSKO LABEL

KALITATEA
**CARNE DE VACUNO
 DEL PAIS VASCO**

EUSKO LABEL

KALITATEA

udal erabakiek

Udal tasa eta zergak %3 igoko dira datorren urtean

Urriaren 2an egin zen udal batzarrean, besteak beste, udal tasa eta zergak %3 igotzea erabaki zen. Familia ugarien kasuan, berriz, hiru maila jarri dituzte udal ordezkariak tasak ordaintzeko. Igoera honekin, zenbait kasutan —zaborrarena, esaterako—, dauden galerak konpentsatzeko asmoa dago. Udal batzarrean azaldu zenez, “datozen urteetan zabor tonaren kostua igotzen joango da”. Uraren kasuan ere, aurten Uraren Kontsortzioak ia %12 igo dio Azpeitiko Udalarari uraren kanona.

Ikastetxeetako udal ordezkariak aukeratu ziren

Urriaren 2ko udal batzarrean ikastetxe arautu eta ez arautuetako udal ordezkariak aukeratu ziren. Iraurgi ikastetxeko ordezkaria Jabier Altuna (EAJ) zinegotzia izango da; Urola ikastola eta Azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastolako Ana Mendizabal (EAJ) izango da; Azpeitiko Ikasberri ikastolako Kontxita Martija (EA); Arte eta Diseinu Eskolako eta Juan Antxieta Musika Eskolako ere Ana Mendizabal (EAJ) izango da.

Ingurugiro Fundazioko kideak

Urriaren 2an, udal batzarrean, Ingurugiro Etxea Fundazioak udalari kideak izendatzeko proposamena landu zen. Ingurugiro Etxea Fundazioko bazkide sortzaileak Arcelor, Danona eta Lapatz dira. Udalak udal batzarrean aukeratutako kideak honakoak izan ziren: Iñaki Etxezarreta (EAJ), Manuel Unanue (EA), Julian Eizmendi alkatea (EAJ) eta Izaskun Zeziaga (Azpeitiko Udaleko Ingurumen teknikaria). Batzarrean azaldu zenez, aurreko Fundazioan lau politikari ziren udal ordezkariak; gaur egun, hiru politikari eta teknikaria.

Azaroak 21, Ikastola Bizirik Eguna

Iterea Uranga / Askagintzak urtero 1989. urtetik Euskal Herri mailan Bizirik Eguna antolatu izan du. Aurten, ordea, Ikastola Bizirik Eguna bihurtu da eta Azpeitiko Ikasberri Ikastolan ospatuko da azaroaren 21ean.

Bizirik Eguna drogomenpekotasunaren prebentzioaren aldeko eguna da. Egun hau Ikasberri ospatzearen arrazoia Askagintza eta Ikasberriaren arteko

harremana da. “Ikasberri urtean zehar Askagintzarekin drogamenpekotasun prebentzioa lantzen du tutoretza orduetan. Sistematikoki lantzen da haur txikienetatik hasi

Askagintzarekin drogamenpekotasun prebentzioa ikasleekin tutoretzan sistematikoki lantzen dugu”

Aitor Azpillaga
(Ikasberriko zuzendaria)

eta helduenak arte. Ondorioz, Ikasberriaren eta Askagintzaren artean harreman berezia dago”, dio Aitor Azpillaga Ikasberriko zuzendariak. Urtero leku desberdinetan egin da Bizirik Eguna, eta leku horretara egokitutako programazioa antolatu da. Ikastola Bizirik Egunak *osasuntsu bizi* mezua izango du ardatz, eta mezuaren araberako egitaraua osatu dute. Txikieneztat pailazoak eta merienda izango dira; Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek eta DBHko lehen bi mailakoek bi film landuko dituzte; eta helduenekin, gurasoen, ikasleen eta irakasleen arteko mahainguru bat ere egingo dute. ●

Juan Mari Juaristi
gurien... GBBko lehendakaria

“Azpeitian Ibarretxe Planak babes handia jasoko du”

Ion Aranburu / Juan Mari Juaristi azkoitiarra EAJren Gipuzku Buru Batzarreko lehendakaria da. Azpeitiko Batzokiaren 25. urteko ospakizunetara etorri zen, Ibarretxe Planaren inguruko hitzaldia ematera.

● **Lehen aldia al da Azpeitira etorri zarena GBBko lehendakari bezala?**

Ez. Kargu hau hartu dudanetik bigarren aldia da Azpeitiko Batzokira etorri naizena. Eta Gipuzku Buru Batzarreko kide bezala, askoz gehiagotan etorri naiz.

● **Zer harrera izan duzu?**

Beti oso harrera ona jaso izan dut Azpeitira etorritakoan. Nire iritiz, Azkoitia eta Azpeitia euskal nortasun handienetakoa duten herriak dira, eta bailara honetan bizi maila handia lortu da azpeitiarrei esker.

● **Ibarretxe Planaren inguruan Azpeitiak zer jarrera izango duela uste duzu?**

Ez daukat dudarik Azpeitian Ibarretxe Planak babes ikaragarria jasoko duela. Hitzaldiaren helburua proposamen honen ezaugarriak ulertaraztea zen. Horrela, jendea bere eguneroko jardueran gai izango da plana zertan datzan azaltzeko.

● **Jendea jabetu al da nolako den plana?**

Gehiengoak ez daki. Askotan gertatu ohi den bezala, Espainiako komunikabideen bidez manikeismoa egon da, eta sinplismora eta gezurrera jo da. ●



Errotonda berria egiteko lanak hasi dira berriz ere


Ion Aranburu / Sanjuandegi eta Jose Artetxe arteko bidegurutzean errotonda berria egiteko obrak berriro martxan jarri dira. Obrak geldituta egon ziren, lurreko materiala eskasa zelako. Lurrean —ibaian erdi-erdian— sondeoak egin behar izan zituzten, eta uztailetik lanak geldituta egon dira. Azkenean, arazoak konpondu eta berriro lanean hasi dira.

Zubia zabaldu beharra dago biribilgunea egiteko, eta zubi berriaren oinarriak jartzeko luraren kalitatea hasieran uste zena baino eskasagoa da. Orain inguruko lurrak aztertu dituzte, eta zubi berriaren oinarriak jartzeko lekua aurkitu dute. Zubia zabalteko obrak maiatzean hasi ziren. Obraren ardura Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio, eta honen aginduz lanak egiten Altuna Uria ari da. Biribilguneke lanak, berez, urte honen bukaerarako bukatu nahi ziren, baina ezin izango dira epe horretan bukatu, tartean gertatutako atzerapenengatik. ●



Zubi berriaren oinarria jartzeko material eskasa topatu dute. / ION ARANBURU

zer dago gaizki, zer soberan, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Azaroak 18 (asteartea)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)


AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Jostaldi Kirolak kirol dendaren erosketa txartela.

AURREKO ARGAZKIA...



...ETA SOLUZIOA




IRABAZLEA: Ana Aramendi Irulegi



Ana Aramendi Irulegi izan da 44. garailea. Iosu optikako erosketa txartela irabazi du. Argazkian, Ana Aramendi Irulegi bera —eskuinean— eta Iosu optikako Iosu.

“Jubilatuen Astean jubilatuen proposamenak jasotzea eta zer antolatu nahi duten jakitea da elkartearen nahia”

Pedro Mendoza
(Jubilatuen Elkarteko kidea)



Pedro Mendoza. / UZTARRIA

“Aurtengo denboraldian alergiarekin arazoak izan ditut, baina polen garaia pasatu eta bost lasterketa irabazi ditut”

Andoni Aranaga
(txirrindularia)

Fernando Morillo

Euskadi Literatura Sariaren irabazlea

«Eman didatena oparia izan da, hainbeste maite dudana hobeto egiteko oparia»

Kepa Urbietak/ Fernando Morillok, *Izar Malkoak* lanarekin, haur eta gazte literaturari dagokion saria jasoko du. Izen handiko idazleak zeuden tartean, Pako Aristi besteak beste. Horregatik, berria harriduraz hartu duela dio.

● **Nola hartu duzu haur eta gazte literaturari dagokion Euskadi Literatura Sariaren irabazlea zuk idatzitako *Izar Malkoak* lanak jasoko duela jakitea?**

Batez ere harriduraz hartu dut saria. Hasieran ere, finalista nintzela jakin nuenean, harritu egin nintzen, baina lehiakideak zein nituen kontuan hartzean lasaitu egin nintzen zertxobait. Benetan, ez nuen espero. Beti egoten da bestelako sarietan itxaropena, baina...

● **Zer dakarkio Euskadi Literatur Saria jasotzeak Morillori?**

Niri ikaragarritzko lasaitasuna eman dit,

gehiago eta hobeto idazteko aukera daukat orain. Eman didatena oparia izan da, hainbeste maite dudana hobeto egiteko oparia.

● **Zer egiteko dituzu aurrera begira?**

Une honetan Pontevedran nago (Galizian); isolatuta egoteko denbora hartu dut, gehiago ikasi eta lan batzuk prestatzeko asmoz. Inork ezagutzen ez nauen leku batean egoteko beharra dut. ●



Fernando Morillo idazlea. / UZTARRIA

Begiratu bat lanari

● **Zientziazale amorratua, Filosofia ikasitakoa, lanbidez denetarik egindakoa eta idazlea.** Oraindik “ikaragarri” ikasten ari omen da, eta ez omen du beste ezer behar. Horrelakoa da Morillo. “Barnean entzundako abisuari jarraituz” hasi zen idazten, eta gaur egun hitzak atera nahian hasten zaizkio buru barruan —bihurri— eta berak erditze ero bati ekiten dio. “Idaztea artea da eta edozein arte bezala, ikasi egiten da”.

CENTERPOINT ACADEMY

Ingelestegia- English School

- HAURRENTZAKO KLASA BEREZIAK
- IKASTALDE TXIKIAK
- ORDENAGAILUZ ETA BIDEOZ LAGUNDUTAKO IRAKASKUNTZA
- INGELESEZKO LIBURUTEGI ETA BIDEOTEKA
- AZTERKETARAKO PRESTAKETAK. HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALA, CAMBRIDGE, TOEFL

HELDUENTZAT 0-TIK HASITAKO TALDEAK

ZATOZTE!!!

Foru Ibilbidea, 7-1 ezk.

Tel.: 943 81 65 03



Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62



- ✦ Lorategien proiektuak
- ✦ Zuhaisken kimaketa
- ✦ Lorategi eta zelaien mantenua
- ✦ Belar landaketa eta tepe egur, harri edo txilar jartzea

943-025319 (Azkoitia)

679106753 (mugikorra)

motxien

Itsasi mutil dantzarien bila ari da

Itsasi dantza taldeak 14 urte-tik gorako mutilei gonbitea luzatu die helduen dantza talderako. Astean bi entseiu egiten dituzte, asteartetan 21:00etan eta ostiraletan 20:30ean. Izena emateko: 94315 18 49 telefonoan izena eta telefono zenbakia utzi, Itsasiko kideren bati esan edota entseiu egunetan taldearen lokalera agertu.

'Sakabi'ren biografia kalean da

Sakabi, soinu txikiaren handitasuna liburua aurkeztu zen Donostian urriaren 30-ean. Faustino Azpiazu Salegi *Sakabiren* biografia Iñigo Aranbarri idazleak idatzi du, eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak argitaratu.

Domund eguneko saridunak

Mixio Taldearen Domund eguneko zozketako sariak azaldu dira: Bizikleta, 16.704 zenbakia; eta urdaiazpikoa, 9.531 zenbakia.



LEIRE LARRAÑAGA

KARTA JOKO AZKARRA. Jubilatuen Astean karta joko azkarrak izan zen Aitonena I-ean, urriaren 14an. Puntuak irabazte Angela Leunda eta Katalina Galarraga izan ziren, eta mutsean Luxio Amenabar eta Felipe Otaño.




ION ARANBURU

SAKABANAKETARIK EZ. Azpeitiko saihesbidean, Sanjuandegiko bidegurutzean, euskal presoek sakabanaketa salatzeke auto bat irauli zuten, auto istripu bat irudikatuz, urriaren 9an.



MAJE LARRAÑAGA

AZPEITIARRAK MARBOREN. Lagun Onakeko mendizaleak, Pirinioetan, Ordesako bailarako Marbore (3.248 metrotan) tontorrean izan ziren urriaren 11-12ko mendi irteeran.



Eneko Etxeberria - Mikel Azkune

Egunkaria SAko lege ordezkaria - Egunkariaren Ardatz enpresako administratzailea

Eneko Etxeberria eta Mikel Azkune, biak ere Egunkaria enpresako langile azpeitiarrak, libre daude urriaren 21etik, atxilotuta egon ostean, beste zazpi lagunekin. Haserre daude operazioarekin

“Sumario hau lotsagarria eta asmakizuna da”

I. Mendizabal

Espainiako Estatuaren beste sarekada bat izan zen urriaren 16koa. Egun batzuk lehenago 34 euskal herritar atxilotu zituzten, ETArekin “harremana” dutelakoan —14 askatu dituzte—, eta urriaren 16an euskalgintzako zortzi lagun. Haien artean bi azpeitiar: Mikel Azkune, etxean, Errenterian; Eneko Etxeberria geroago, Madrilen, 20an. 21ean irten zuten libre, baina inpuntatuta, eta Azkune 12.000 euroko fiantzarekin. Inpuntazioa: “iruzur” egitea. Hori guztia “lotsagarria eta asmakeria” dela diote.

• Nolakoa izan zen zuen atxiloketa?

Mikel Azkune. Goizeko ordu biak aldera sartu ziren etxera guardia zibilak. Atxilotu nindutenean banekien Ardatz enpresagatik neramatela (*Egunkaria*-rako iragarkiak lortzen zituen enpresa da), administratzaile naizela, eta pentsatu nuen sarekada izango zela, ez nintzela atxilotu bakarria izango.

Eneko Etxeberria. Madrilen, Entzutegi Nazonaleko gela batean nengoan, behan, zain, eta ordurako oso nekatuta, jada gaueko bederatiak zirelako eta goizetik nengoelako han, abokatu naizenez. Del Olmo epailea etorri zitzaidan, bere gelara igotzeko. “Proba dokumentalak daude, deklarazioetan egindako zure kontrako akusazioak ere bai, eta atxilotuta zaude eta inkomunikatuta”, esan zidan. Aurretik deitu izan banindu joango nintzatekeen, baina eskertzen diot bera pertsonalki etorri izana atxilotzera...

• Eta tratua, nolakoa izan zen?

Azkune. Infernu latza izan zen. Ez genuen inolako tratu txarrik jaso; ez fisikoki, ezta umilaziorik ere. Tratua zuzena izan zen, komatxo artean. Baina beldurtuta nengoen, badakidalako nolako egurra eman ohi den inkomunikazio egun horietan.

Etxeberria. Nirea desberdina izan zen, gau bakarra egin nuelako, Guardia Zibilaren eskutik pasatu gabe, epaitegian bertan atxilotu nindutelako. Baina tratua izan zen. Urduri jarri nintzen Del Olmok hori esan zidanean. Tentsio jaitsiera izan nuen. Epaitegiko ziegetara jaitsi ninduten eta hantxe pasatu nuen gaua, goiza arte.

• Zer galdetzen edo akusatzen zizuten?

Etxeberria. Del Olmo epaileak teoria oso bat dauka eratuta, non Egunkaria SA, Martin Ugalde Kultur Parkea eta abar ETAKo parte diren, diru zuriketak eta halakoak ikusten ditu alde guztietatik, eta nik ba omen dut horren denaren berri. Nik segituan esan nion ez dagoela deliturik. Eta, era berean, esan nion ni ez naizela

ETAKoa, Egunkaria SAko lege ordezkaria naizela, eta inor inoiz ez zaidala etorri ETAKoa dela esanez eta zerbait aginduz.

Azkune. Inkomunikatuta egon nintzen bost egunetan Guardia Zibilak hiru aldiz interrogatu ninduen; behin furgonetan, beste bietan kalabozoan. Beti izan naiz *Egunkaria*-ko sare komertzialeko langilea, zortzi urtean; eta Ardatzeko administraria ere banaiz, baina nik ez nuen horretan lan egiten. Fikziozko administradorea naiz, eta horregatik Ardatzeko funtzionamenduen inguruan ezin nuen ezertxo ere esan, ez nekielako. Inolako funtsik gabeko akusazioak ziren. Lotsagarria.

• Eneko, zeu zara Egunkaria SAko lege ordezkaria eta, hala ere, atxilotu egin zintuen Del Olmok...

Etxeberria. Abokatu figurari barre egin zaio. Egunkaria SAren eta inputatuen defentsa eskubidea hankaz gora bota zuela adierazi nion epaileari. Kazetariak geuk baino aukera gehiago dituzte defenditzea dagozkigun kasuak jarraitzeko.

• Sumarioa sekretupetik altxatu dute.

Etxeberria. 2001etik zeukan sekretupean. Aztertu egin beharko da, 30.000 orrialde dira, baina erakutsi ahal izango dugu Egunkaria SA ez dela ETArekin eta sumario hau asmakizuna eta aldrebeskeria baino ez dela. Sumarioa altxatuta, kartzelan dauden hiru pertsonen askatasuna eskatzea izango da lehentasuna. Epaileak ezarrita dituen neurri bereziak altxatzea izango da hurrengo pausoa; Egunkaria SArekin lotura duten enpresen itxiera eta kontuen blokeoa altxatzea, alegia.

“**ETXEBERRIA.** Del Olmo epaileari segituan esan nion hemen ez dagoela deliturik”

“**AZKUNE.** Infernu latza pasatu genuen, badakidalako egurra eman ohi dela inkomunikazioan”

- Mikel Azkune 5 egun egon zen inkomunikatuta, bere abokaturik gabe.
- Madrilera autoan eraman zuten, burua makurtuta eta estalita.
- Ziegan deklarazioa, hormara begira eta begiak estalita.
- Jatekoa, beti hotza; mortadela otartekoa.
- Azkeneko gaua marmolezko ohe baten gainean egin zuen.



BESTE HARRERAK.

Herriak urriaren 24an hartu zituen Eneko Etxeberria (goiko argazkian, atzean) eta Mikel Azkune; 21ean geratu ziren libre, Madril (aldameneko argazkiak). Baina herria harrera gehiago egiteko gogoz dago, oraindik hor baitaude preso sei azpeitiar. Gari-koitz Etxeberria *Kafe*-rena azpimarragarria da: 2001eko martxoan atxilotu zuten, etxean, Haika gazte erakundekoa izateagatik, jadanik bi urte eta erdi daramatza preso eta oraindik ez dute epaitu!



alerik ere oharkabean joan ez dakigun gehiago

gure barruak hustutzeko joera makurra salatzeke etorri naiz eta badakit neurri handi batean kaltea egina dagoela berandu izan litekeela aspaldi hustutzen hasitako arimak bere onera ekartzeko galdutako asko ez dela itzuliko sekula nahiz eta halako batean, akaso, batek daki, gu, edo beste batzuk, nonbaiten, inoiz zoriontsu izan eta hainbeste daukagu konpontzeko osatzeko gure barru zartatu hauetan bere tokian jartzeko

baina kontaktzen ahazten bazaigu galduak gara —gure etsairik gabe gure lagunik gabe zer gara ba— hor dago gure indarra horretan da geure izatea bera esan dezadan, aritmetika humano bat: nor bizi da eroso gaur egun bere sasoiari

poema

Hona hemen **Jose Luis Otamendi** poeta herritarrak urriaren 24an Mikel Azkuneraren eta Eneko Etxeberriaren harrerarako propio prestatu eta omenaldian irakurri zuen poema.

Mikel eta Eneko etxean dira

aspaldi honetan ni ere aritmetika ariketa zoroetan sartuta nabil: zenbat auzokide, herritar ezagun —gogai de zein etsai kuttun— zenbat lagun kendu dizkidaten bistatik kontuak egiten ditut

eta horrelakoetan jabetzen naiz gu ere paisajearen bazterreko osagai gabela soslaiak urruneko argazki batean etorkizun zabal eta helgaitzari ertz lausotu batetik begira

gure baitaren deshabetatze antolatua salatu nahi nuen baina ez nekien zein bulegotara jo nondik ekin nola galarazi isuri gera ezin hori: jendea indarrean daramate era txarrean ari zaizkigu

ateratzen kirioetatik, barrenetik azaleko usainetik kentzen hezurretatik itzal arrastoak ezabazten kendu eta kendu ari zaizkigu ari gara aurpegiak keinuak ahotsak kentzen eta izendegi amaiez in bat ondoren...

eta lotsatu egiten naiz jendeak igarri egingo baitigu barren hustu hori geure begietako putzuan igeri

gure baitaren deshabetatze sistematiko salatzen dut beste inon hoberik ez eta arkupe hauetan egitea otu zait zuen guztion aurrean

ez dut onartu nahi ekaitzen mende bizitze hau ekaitz aldi bakoitzak zer lapurtuko

eta gero hondakinen artean bilduko dugunaren itxaropenez ibili beharra beti

lotsa ematen dit jendeak eguna joan eguna etorri batera eta bestera barrena hutsik gabiltzala antzematea begietan edo ibileran edo hitz egiteko doinuari

jendea ari zaizkigu barrutik ateratzen su hartutako hotelak bagina bezala oldar batean eta ez gara larrialdiko eskailerak ez gara meatze abandonatuak ikatza bezala gure barrutik pertsonak ateratzeko geure urratu eta zauri trakets guztiekin nahi dugu bizi eta inor barrutik kentzen digutenerako kontuak egin banan-banan

horregatik sarritan aritmetika ariketa zoroetan sartuta ibiltzen gara zenbat auzokide, herritar zenbat lagun kendu dizkiguten bistatik kontuak egiten ditugu eta bueltan datozenak —gaur bezala— azkar hartzen ditugu berrira gure kaleetan geure ametsen abaroan festa giroan ospatzen dugu eta maitemindu adiskidetu berrien antzera besarkada artean elkarri agintzen diogu ez gaituztela gehiago bata bestearen hondotik aldenduko eta pozak txorutzen gaude baina ez gaude konforme: izan ere oraindik ez zaizkigu kontuak ateratzen eta ekaitzen mende bizi behar honekin ez dugu etsiko ●

URRESTILLAN BIZITZEA ZER DEN



Dakizuena aitortzen hasiko naiz lehendabizi: ni Azpeitian bizi naiz, leku askotan bueltaka ibili ondoren garai batean hortxe portunatu zitzaidalako etxebizitza egoki bat. Baina maite dut neure herria, kezkatzen nau neure herriak, nere bizitzaren zati handi bat bertan dago.

Urrestilla bizitzeko leku ederra dela entzuten dut Azpeitian. Etxe berriak egin dituzte, ez oso merkeak baina, eta bikote asko ari da bertara joaten. Lasaia omen da, eta kapitaletik gertu dago, horra bentaja. Afaltzera joateko ondo dago Urrestilla, baita hamaiketako egitera joateko ere igandetan. Ez ditut dohain hauek ukatuko, baina fatxada horren atzean badago beste zerbait. Herri bat ez da afaltzeko leku soilak; herri bat ez da lasaitasunean lotara joateko leku hutsa. Zerbait gehiago da herri bat. Eta Urrestillak hutsune nabarmenak dauzka jan-edanaz aparte.

Imajinazioa martxan jartzea eskatuko dizuet azpeitiarroi. Urrestillan ez dago farmaziarik. Urrestillan dagoen botika bakarra aspirinak dira, Mariren dendan. Imajinatzen duzue frenadol edo beste edozein sinplakeria behar eta, etxetik irten, autoa hartu eta Azkoitira joan behar izatea erostera?

Urrestillan ez dago medikurik. Imajinatzen duzue gripearen aurkako txertoa bezalako gauza simple bat hartzeko autoa hartu, Azkoitira joan, han aparkatu, hartu zatzada, berriro autora itzuli eta etxera etorri beharra? Urrestillako lurretan baserri asko dago. Urrestillan sendagilea balego gaitzerdi litzateke baserritarrentzat, biaje erdia. Baina haiek, eta denek, Azpeitira joan behar kontsultarik sinpleena ere pasatzeko.

Urrestillan ez dago eskolarik. Umeak, txiki-txikitatik, autobusean sartu eta Azpeitira eramaten dituzte, edo norberaren autoan. Urrestillan ez dago liburutegirik, neguko arratsalde ilun eta hotzetan umeak irakurtzen, lanak egiten, jolasten edo ikastaroak egiten entretenu daitezten.

Urrestillan ez dago autobusik egunero jendea Azpeitira eramateko. Asteartetan dago, azokako jira egiteko, eta ikasleena, ikastetxeetako ordutegiarekin lotuta. Urrestillan autoa ez daukana salduta dago. Urrestillan hirurogei urteko emakumeak ikusi izan ditut auto-stop egiten; ikusten ditut baserritarrak injektio bat hartzeko taxixa garesti ordaintzen. Hori bidezkoa al da herrialde desarroilatu eta moderno batean?

Urrestillako frontoian jokatzeko Azpeitin hartu behar da txanda. Imajinatzen duzue azpeitiarrok Azkoitira joan beharra zuen frontoian jokatzeko baimen eske? Erridikuloa ezta, onartezina; ba urrestiltarrok ere ez dugu onartu nahi zuek onartzen ez duzuenik. Zuek

**HILEKO
GALDERA.**
40 milioi
pezetako
pisuen ofertak
ikusit ditut.
Non eman
behar da
izena txollo
horrentzako?

baino gehiago ez, baina gutxienez zuen pareko garelako.

Urrestillak atzeraka egin du urte hauetan. Lehen baziren bost edo sei taberna, gaur hiru daude. Lehen baziren lau bat denda, gaur bi daude. Eta dauden denda edo taberna horiek aurrera jarraitzeko ez dakit nola ibiliko diren. Herri inguruak fabrikaz bete zaizkigu, baina guk ez dugu dirurik ikusten hortik. Bikote gazteak datoz bizitzera, baina herriak ez dauka lehen baino zerbitzu gehiago. Hori nola ulertzen da?

Oso erraza da: udaletxerik ez daukagulako goaz atzera. Aberastasun ekonomikorik gabeko herria gara, indar politikorik gabea, erabakirik hartu ezin duena. Gipuzkoan herri asko daude, Urrestilla baino txikiagoak, kaskarragoak, urrunagoak eta galduagoak, baina Urrestilla baino dotoreago daudenak, jantziago, osatuago, beste bizi maila batekin. Azpeitian adarra jotzen didate, esanez orain alkatea herrian daukagula, alkateordea ere bai, zinegotzi bat bertakoa da... ikusten ditut bai, txikiteoan, afaltzen edo pasieran, beste ezertan ez. Oraingoz.



Uztarrria herri aldizkaria

Uztarrria herri aldizkariak lau urte eta dagoeneko 2.000 aleko tirada

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarrria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerria (Azpeitia).
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarrria@topagunea.com


Web orria:
www.uztarrria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 2.000 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarrria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna



...eta ● Aldizkariaren 45 zenbaki orain arte ● 685 bazkide ● 7.000 irakurle

albiste txikiyek

Efemerideen liburua kaleratzeaz da

Uztarrria Kultur Koordinadorak azaroaren bukaeran Imanol Eliasek idatzitako Azpeitiko efemerideen liburua aurkezteko asmoa du. Efemerideen liburuak Azpeitiko herria sortu zenetik eta gaur egun arteko gertakizun bitxi eta garrantzitsuenak jasotzen ditu, egunez egun. 350 orrialde inguru izango dituen liburu interesgarria izango da.

Uztarrria.com goraka

Abuztuko beherakadaren ondoren (abuztuan ez da berririk sartzen webgunean), Uztarrria Kultur Koordinadoraren webgunea —uztarrria.com— bisitarien aldetik bere ohiko bisitari kopurura heldu da, eta gaitu ere gaitu du egun batzuetan; izan ere, 1.300 bisitatik gora izatera iritsi da urriko egun batzuetan. Webak bisita gehien astegunetan izaten du, eta asteburuetan (albisterik ez da sartzen) behera egin ohi du.

685 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21 euro (aldizkaria, bi liburu, 'Literatuzta') / Bestela egin harpidedun (aldizkaria soilik; kontuarena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

KODE POSTALA:

TELEFONOA(K):

POSTA ELEKTRONIKOA:

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):

Julian Elorza Hiribidea, 4, 1.a ezkerria • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarrria@topagunea.com

Batera edo bestera joateko autobus zerbitzua, egunero eta sarri hartzen dutenak asko dira Azpeitian. Baina nahiko komeria ibili behar da zenbait lekutara garaiz edo nahi den ordurako iristeko

HARA ETA HONA, AUTOBUSEAN?

Iterea Uranga

Bidaiatzeko, herri batetik bestera mugitzeko, loturak askotan garraiobide publikoek eskaintzen dituzte. Baina bidaiaria eroso izateko lotura onak izan behar dira. Azpeitiko kasuan nahiko erraztasun gutxi dago, ordea, zenbait bailaratara, auzotara autobusez edota trenez joateko. Donostiara joateko aukera zuzenak daude: autobusez autopistaz, Zumaiara joan eta han trena hartuz...; esan daiteke kostaldera joateko azpeitiarren aukera nolabait bermatuta dagoela garraio aldetik. Baina Gasteizera, Nuarbera, Urrestillara, Arrasatera, Beasainera edo Tolosara joateko zer?

Urolako trenak, inauguratu zen egunean —1926ko ekainaren 22an—, “azpeitiarren ametsa bete” zuen, Imanol Eliasen hitzetan. Donostia eta Bilborekin lotunea zuen trenak Zumaiko geltokian, eta Zumarragako geltokian Madril eta Bartzelonarekin. Baina trenak 60 urteko ibilbidearen ondoren eta zaharkitua zegoelako, 1986ko uztailaren 14an egin zuen azken joan-etorria.

Zuzeneko autobusik ez

Azpeitia-Arrasate: Bi autobus hartu behar dira. Bi orduko bidaiaria.

Arrasaten eta inguruan ikasten eta lanean dabilen azpeitiar ugari da. Langileek, oro har, egunero autoz joan-etorria egi-

ten dute; batzuek bakarka, eta beste batzuk hiru-lau elkartu eta elkarrekin autoz joaten dira. Ikasle gehienek, aldiz, pisu bat hartu Arrasaten eta astea han pasatzen dute, egunero joan-etorria autobusez egitea “nahiko konplikatu” delako.

Aitzol Larrañaga Arrasateko Unibertsitatean ari da ikasten eta astea han pasatzen du. Iaz, asteburuetan, etxerako joan-etorria autobusez egiten zuen eta horretarako Arrasatetik Elgoibarrera autobusa hartzen zuen, eta Elgoibarrera bila norbait joaten zitzaion. “Iaz, Azpeititik Elgoibarrera ibiltzen ziren autobusen ordutegia eta Arrasatetik Elgoibarrerakoena ez ziren bat etortzen eta Elgoibarren egonaldia egin beharrean izaten ginen. Beraz, etxera lehenago heltzeko norbaiti bila joateko eskatzen genion”, dio Larrañagak. Aurten, ordea, batekin edo bestearekin autoz joaten dira Arrasatera.

Ana Zendoia Eskoriatzan ari da ikasten goizez, eta gero arratsaldez lana egiten du Azpeitian. Egunero joan-etorrian ibiltzen da, autoz. “Bost lagun joaten gara hara: hiru azpeitiar eta bi azkoitiar. Autoan joan beharra dago, oso autobus gutxi dagoelako eta ordutegia ere oso eskasa delako. Kotxean ibiltzera ohitu naiz eta, gustura nabilenez, horrela jarraitzeko asmoa dut”, dio Zendoiak.

Urretxuko Apaolaza autobus enpresak asteburuetan ikasleentzat Azpeititik Arrasaterako zerbitzua ere martxan izan du. “Nahiko ikaslek izena emanez gero, Apaolazak autobus txiki bat jartzen zuen Azpeititik Zumarragarako, eta han autobus handiago batera pasatu eta Arrasatera joaten zen”, dio Larrañagak.

Azokarako autobusa bakarrik


Azpeitia-auzoak: Matxinbenta aldera astearteetan autobus bakarra dago.

Matxinbentara, Nuarbera eta Urrestillara joateko ez dago lineako autobusik; alegia, ez dago eguneroko joan-etorria egiten duen autobusik. Beasainera Azpeititik ez dago batere autobusik. Azpeititik Beasain edo Goierri aldera garraio publikoan joateko dauden aukerak honakoak dira: lehenengo Zumarragara joan eta handik trena hartu; Tolosara joan (egunean bi autobus baino ez daude) eta han trena hartu edota Donostiara joan eta han beste autobus bat hartu.

Matxinbentarraino joaten den autobus bakar bat dago Azpeititik, astearteetan, azokara joan-etorria egiteko. Goizeko 08:00ak aldera abiatzen da handik eta Nuarbetik eta Urrestillatik pasatuz Azpeitira dator. Buelta-ko autobusa 11:30ean ateratzen da Azpeititik, Artetxenekoa aurretik. Bestela, Matxinbentakoek, Nuarbekoek eta Urrestillakoek ahal den moduan moldatu behar izaten dute hona etortzeko, auto stopean, auto partikularrean, senideren batekin autoan, eta oinez ibiltzen denik ere bada. “Motz gelditzen da azokara etortzeko dagoen autobus hau bakarrik egotea”, esan dio Uztarriari emakume urrestildar batek. “Batzuetan, haurrak Azpeitira ikastolara ekartzeko dagoen autobusa hartu behar izaten dugu, eta hori goizean 08:10ak aldera izaten da Urresti- »



1. Matxinbenta aldera autobus bakarra dago, asteartean azokara etortzen dena.



2. Autobus geltokia hutsik. Asteartea, goizeko 08:30ak.

3. Ikasleen autobusak bidaiari ekiten.

4. Donostiarako autobusa bete-bete eginda.



► Ilan. Eta gero bueltarako 13:00etan izaten da anbulategi aurrean. Autobusez Urrestillatik Azpeitira joan-etorrian ibiltzeko gaizki daukagu, oso gaizki. Auto stopean behin baino gehiagotan joaten gara, eta stopean jartzeko askotan poltsekin, kargatuta, kale-tik Landetaraino oinez joan behar izaten dugu. Batzutan, hiru-edo elkartzen bagara Urrestillatik Azpeitira etortzeko, taxia hartzen dugu, baina taxia 700-800 pezeta [4-5 euro] kostatzen da”.

Lehen Escudero, orain Ulacia enpresako autobusek egiten dute Matxinbentearainoko bidea. Autobus gidariak, Zabaletak, Uztarriari adierazi esan dionez, irailean enpresaren erabakiz hilabeteko aproba bat egin zuten, baina ez zen ondo atera, ez baitzuten bidaiaririk ibili. “Azpeititik Matxinbentara egunero lau joan-etorri jarri genituen. Jendeak eskatutako ordutegiari kasu eginez, goizeko 11:00ak aldera autobus bat jarri. Baina gaizki atera zen, ez baitzen batera bidaiaririk ibili”. Batzuetan zerbitzurik ez dagoelako kexu da jendea, eta dagoenean ez da probetxurik ateratzen. Orain behintzat, ez dago autobusean Nuarbe aldera joateko aukera handiegirik.

Tolosarako ‘Correoa’

Azpeitia-Tolosa: Tolosa aldera egunero bi autobus daude, Erreziletik.

Tolosa aldera edota Errezilera joan-etorria egunero, bai astegun eta bai jaiegunetan, Guipuzcoanako autobusek egiten dute, Eusko Trenekin daukan akordioagatik. Egundero bi autobus daude Azpeititik alde hartara: goizean goiz 06:55ean eta eguerdian 13:55ean. Guipuzcoanako arduradunek Uztarriari adierazi diotenez, “ez da bidaiari asko ibiltzen” Tolosarako autobuse-tan.

Ibilbide hori egiten duen autobusa *Correoa* bezala da ezaguna, garai batean postaren garraio bide lanak egiten baitzituen. Guipuzcoana autobus enpresakoen esanetan, garai batean autobus zerbitzu erregular guztiek posta herri batetik bestera eramateko “beharra” zuten. Baina posta batetik bestera garraiatzeaz gainera, pake-teen garraioa ere egiten zuten autobusek. “Paketeak garraiatzea, hau da, herri batetik bestera eramatea, garrantzitsua zen autobus enpresentzat. Baina gaur egun almatzen guztiek bere garraio propioa daukate, kamio propioak dituzte”, dio Guipuzcoana-koak.

Ordutegiaren arabera

Azpeitia-Gasteiz: Autobusa eta tren hartu behar dira.

Gasteizera joateko, ordutegiaren arabera ibili behar da, Zumarragarako autobusaren ordutegia eta trenarena kontuan izanda. Goizez, arratsalde edota gauez joan, bidaiaren denbora ere aldatu egiten baita, baita bidaiaren prezioa ere.


Mikel Aierbe azpeitiarrak Gasteizen ikasten du eta astea pisu batean han pasatzen du; asteburuetan, berriz, Azpeitira etorri ohi da. “Azpeititik Gasteizera joateko oso konbinazio txarra dago. Tren erregionalak hiru bakarrik daude egunero, eta hauek ikasleoi hiru euro inguru kostatzen zaizkigu. Talgoak ordutegi zabalagoa dauka baina garestiagoa ere bada, hamar euro kostatzen direlako. Goizean Zumarragarako autobusa hartu eta han trenaren zain ordu laurdenean egoten gara, baina eguerdi aldera 14:00etako autobusa hartuz gero Azpeitian, Zumarragan ordubetez itxoin behar diogu trenari”, dio Aierbek. Igande gauetan joan ohi da Aierbe Gasteizera, “eta bestela, asteleheneetan goizean goiz hartu behar izaten dugu autobusa Azpeitian Gasteizen klaseko orduetan egoteko”.

Etterako bueltan ere nahiko komeria izaten dituzte trenean. “Gasteiztik Zumarragara bitartean geltoki askotan gelditzen da, ikasle asko izaten gara etxerako bidean, tren gainezka etortzen da eta askotan lurrean eserita hankak mugitu ezinik etortzen gara. Sarri kexatu gara; ordaindu eta gero horrela ibili beharra ere...”. Zumarragan autobusaren zain egon beharrean, eta ahal denean, bila norbait joaten zaie autoz.

“Tentsio handiko” bidaia

Azpeitia-Bilbo: Bi autobus hartu beharra dago.

Arazo eta kexu ugari sortu du Azpeitia-Bilbo arteko autobus zerbitzuak. Orain dela bi hilabete arte Pesak egiten zuen Bilborako zuzeneko ibilbidea. Baina gaur egun zerbitzu hori kendu egin da eta Ermua arteko joan-etorria Eusko Trenek egiten du. Alaitz Olaizolak sarritan hartzen du autobus hori eta egindako aldaketekin kexu da.



Lehen autobus linea Vascongada enpresak jarri

“Zerbitzu bat kendu eta beste bat jarri dute, eta lehen oker bazegoen orain okerrago dago. Ordutegiak goizean hutsuneak zitu-ten lehen eta orain horiek ez dituzte bete. Bestetik, tentsio bizian joaten naiz autobusean, txoferrari galdezka ea Eibarrera garraiz helduko ote garen, han Bilborako autobusa hartzeko. Trafiko asko baldin badabil eta Eibarren autobusez aldatzeko geltokiz ere aldatu egin behar izaten delako, askotan autobusa galtzeko arriskua izaten da”, dio Olaizolak.

Ikasleek ez dute aukera bera egiten: batzuk pisuan gelditzen dira eta besteak autobusez ibiltzen dira egunero. Ikasleentzako Bilborako autobus zerbitzua Piper Ikasleen Elkarteak antolatzen du, Aldalurrekin. Baina Aldalurrek, unibertsitariak eta unibertsitatean lan egiten dutenak bakarrik eramateko baimena du. “Edozein bidaiari gustura eramango genuke baina horretarako baimena behar da. Azkarateko bide berria egin aurretik, guk Bilbora eguneroko linea jartzeko baimena eskatu genuen baina ez ziguten utzi. Gasteizera eguneroko autobus zerbitzua ere gustura egingo genuke, baina baimenak lortzea oso zaila izaten da”, dio Aldalurreko arduradunak.

AZPEITIKO LEHEN AUTOBUSAK

1900. urtetik aurrera lehen aldiz autobus zerbitzuak jarri ziren martxan Azpeitian

Azpeitian automobil baten zerbitzuaren lehen berriak 1900. urtean izan ziren. Halaxe dio Imanol Eliasek *Azpeitia, Historian Zehar* liburuan. "1900ko abenduaren 19an, Zumarragatik Zumaira bitartean automobil zerbitzua egingo zuela adierazi zuen Adrian Got jaunak, baldin eta Udalak laguntzarik eskaintzen bazion. Baina Udalak ezer ematea ezinezkoa zuela erantzun zion".

Baina 1920 inguruan Zumarragako dilijentzien ordeztu, lineako auto bat jarri zen. Vascongada enpresak ematen zuen zerbitzu hori eta Zumarragako geltokitik Arroa-Zestoako geltokia arteko ibilbidea egiten zuen. *Urolako Trena: 1926-1986* liburuan ematen da autobus zerbitzu horren berri. Halaxe kontatzen du Ignacio Artetxek: "José de Artetxek jakinarazten digunez,

bertan, 'bigote tentedun' gidari frantsesak lorak jartzen zituen beirazko ontzi batean, haizetakoaren atzean. Eta Genaro, lehen dilijentziaren gidaria izandakoa, orain autoaren kobratzailea zen. Autobus xume honen txartelak, Azpeitiko Kontzejuko Plazan [Plaza Txikian, gaur egun Udaltzaingoa dagoen tokian] erosten ziren. Hauxe jartzen zuen bertan *Despacho Central de La Compañía Vascongada*".

NUARBE ETA AZPEITIA ARTEAN. 1929. urtean Nuarbe eta Azpeitia artean autobus bat martxan izan zenaren berri ere ematen du *Azpeitia, Historian Zehar* liburuan Eliasek: "Migel Arozena izeneko enpresak 1929ko apirilaren 15ean Udalarari jakinarazi zion Nuarbe eta Azpeitia artean autobus zerbitzua jarri zuela martxan eta Udalarari 900 pezetatoko diru laguntza eskatu zion. Agintariek, 500 pezetako laguntza ematea erabaki zuten". Autobus zerbitzu horrek hiru joan-etorri egiten zituen egunero. Baina, 1934an, ibilbidearen eskusiba Juan Goenagak zuenean, Azpeitiko Udalak joan-etorri bat bertan behera uztea agindu zuen. ●



peitian. / UROLAKO TRENA 1926-1986

press to Tindategiak VII. Enpresa Solidarioen Sarietako hautagaia

Pressto izan zen urriaren 28an Codespa Fundazioak Enpresa Solidarioei emanen VII. saria jasotzeko aukera izan zuen sei enpresatariko bat. Sari honek azken urtean garapen bidean diren herrialdeen arazoekin konpromisoa eta sentiberatasunik handiena erakutsitako enpresak saritu nahi ditu, baita enpresetan elkartasuna bultzatu ere.

Beste bost finalista honakok dira: Repsol YPF, Travel Club, BBVA, BSCH eta Inditex. Presstok enpresa erraldoi

hauen arten egotea lortu du azken urteetako gizarte arloko proiektuei esker. Hala nola, dendetan erabilitako arropa jasotzea, Elkartasun Fonda, Gabon-txartelak egiteko hainbat GFE-rekin parte hartu izana, eta bestelako ekimenak.

Codespa fundazioa irabazi asmorik gabeko elkarte da, garapenerako nazioarteko lanetan 17 urte baino gehiagoko esperientzia duena. Elkarte honen helburua beharrik handieneko herrialdeetan giza, ekonomia eta kultur garape-

nean eragitea da, euren beharrik asetzeko gauza izan daitezten. Codespa administrazio publikoarekin, enpresekin eta norbanakoekin elkarlanean aritzen da, epe ertainera eta luzera garapen jasagarria ziurtatzen duten baliabideak eskaintzeko.

Aurreko urteetan irabazi duten enpresak ondorengo hauek dira hain zuzen ere: Leche Pascual taldea, Coprodeli Fundazioa, Viajes Barceló taldea, La Caixa Fundazioa, Caja Madrid eta Unión Fenosa.

press to

Kalitatezko Tindategi Azkarrak



Azpeitiko Pressto Tindategia.

Jose Artetxe 9, Azpeitia:

943 81 63 62

Guardia kalea 3, Azkoitia:

943 85 16 61

San Francisco kalea 32, Elgoibar:

943 74 35 08

TRATU TXARREI, STOP!

Herrian zenbait ekitaldi antolatu dira Emakumearen Aurkako Indarkeria Desagerrazteko eguna dela eta; iaz tratu txarrak jaso zituztenen 26 kasu lagundu ziren

Nerea Uranga

Azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrazteko Nazioarteko Eguna da. Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuak sailak tratu txarren gaia landu eta kaleratzeko asmoa du egun hori dela eta. Ez da aurreneko aldia gai horren inguruan herrian ekitaldiak egiten direna. Beste hainbat udalerritan bezalaxe Azpeitian ere tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak daude (iaz 26 kasu hartu eta lagundu ziren Udaleko Gizarte Zerbitzuetan; denak emakumeak). "Tratu txarrak ezberdinduta bereizten dira, baina denak dira tratu txarrak: fisikoa, sexuala, psikologikoa, emozionala, soziala eta finantza-mailakoa", dio txosten batek.

Lau salaketa jarri ziren iaz Azpeitian. Kasuak asko badira ere, zenbait ez da ausartzen bikotearen tratu txarrak jaso eta hari salaketa jartzera. Gizarte Zerbitzuetako laguntzaileen iritziz, "beldurra dago erasotzailea salatzeko". Gainera, orain arte kasu horiek makal joaten ziren; hau da, salaketa jarri eta neurriak hartu bitartean erasoak jaso dituen erasotzailearekin bizi beharrean izaten zen kasu askotan. "Bikotearen tratu txarrak jasotzen dituen batek etxea utziz gero, eskubide batzuk galdu egiten zituen. Eta bikoteari salaketa jarri eta harekin bizi beharrean zen, etxe berean, eta bikoteari salaketa noiz helduko beldur izaten ziren eraso-

tuak, erasotzailearen erreakzioaren beldur", dio Udaleko Gizarte Zerbitzuetako laguntzaileak. Orain, ordea, abuztuaren 1etik aurrera, Espainiako Legebiltzarrak onartutako lege baten ondorioz (Hego Euskal Herrian ere indarrean dago), salaketa jarri eta prozesua azkartzeko neurriak daude martxan: salaketa jarri eta 72 orduren buruan erasotzailea epailearen aurrera deituko da eta tratu txarrak jaso dituenak babesa jasoko du.

Gizarte Zerbitzuetan Emakumearen arloan Ekintza Plan Positiboa abian dago eta tratu txarra jasotzen duten emakumeei laguntza ematen zaie. Laguntza psikologikoa eta beharrezko laguntza guztia bideratzen zaie udaletik (Gizarte Zerbitzuetako telefonoa: 943 15 71 91).

GAIA HERRIRATUZ. Azaroaren 25eko Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Emakumearen Mahaiaik zenbait ekintza antolatu ditu: herriko zenbait ikastetxek Emakundetik bideratutako liburuxkak landuko dituzte 12 eta 18 urte bitarteko gazteekin. Herri-bera begira, etxez etxe kanpaina egingo da eta zineforuma antolatu da, doan, Enparanen, 15:30ean. *Solo mia* filma emango da eta Gloria Martin psikologoa eta gaian aditua denak foruma gidatuko du. ●

Azpeitiko kasuak

- **26 EMAKUME.** Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik iaz (2002an) tratu txarrak jaso zituzten 26 emakumeri eman zitzaaien laguntza psikologikoa. Ez zen kasu bakar bat ere eman gizonen kasuan.
- **4 SALAKETA.** Udal Gizarte Zerbitzuetatik iaz laguntza psikologikoa jaso zuten 26 emakumeeetatik lauk tratu txarra jasateagatik salaketa jarri zuten.

Bi egunkari bakar batean



Gerrarako argudioak balio gabe utzi dituzte arma ikuskatzaileek

TXOSTENA. Irakensuntzipen handiko armarik ez dutela aurkitu erakusten du AEBek propio osatutako ikuskatzaile taldearen txostenak

OKUPAZIOA. NBek uko egin dio irakeko prozesu politikoan parte hartzeari, koalizio okupazioa bertan behera uzten ez duen bitartean / 53



Txillidaren 200 obra Europar ikusgai

Kirola eta Txillidaren 200 obra Europar ikusgai. Batek 1000 euroko prezioan erosten dira, baina ez dute salerospenik. Txillidaren 200 obra Europar ikusgai. Batek 1000 euroko prezioan erosten dira, baina ez dute salerospenik.

Kirola eta Txillidaren 200 obra Europar ikusgai. Batek 1000 euroko prezioan erosten dira, baina ez dute salerospenik. Txillidaren 200 obra Europar ikusgai. Batek 1000 euroko prezioan erosten dira, baina ez dute salerospenik.

Kirola eta Txillidaren 200 obra Europar ikusgai. Batek 1000 euroko prezioan erosten dira, baina ez dute salerospenik. Txillidaren 200 obra Europar ikusgai. Batek 1000 euroko prezioan erosten dira, baina ez dute salerospenik.

<p>GAURBERRIAN</p> <p>BERRIEN MAHAIKIDAREN JOKO BIKTIMITZATZ 10</p> <p>LARRIAREN ERATZERATZIA 16</p> <p>GAUR 56 ORRIALDE</p> <p>© Gaur, berriarekin, gehigarri berezia</p>	<p>ITSAS MENDI karabanak</p> <p>www.itsas.mendi.com</p>	<p>mai de oio</p> <p>www.mai.de.oio</p>
--	---	---



t
tartea

Astialdia
12 orrialde egunero
Gertuko gaiak
Elkarrizetak
Erreportaiak
Kronikak
Mendia
Moda
Gastronomia
Jaiak...

berria

Informazioa

Informazio landu eta argigarria, diseinu berritzaile batekin emana

...eta gainera



Mantangorri:

Larunbatetan
16 orrialdeko gehigarri koloretsua
haur eta gaztetxoentzat



Igandea:

Asteko albistek
patxadaz aztertze aukera.



Internet:

Edizio jarraitua,
webgune tematikoak
eta eztabaidaguneak



Euskaldunok behar dugun

berria

datue

247

lagun joan ziren Azpeititik autobusez urriaren 18an Kontseiluak deitutako *Gora Euskal Herri Euskalduna* manifestaziora. 504 euro bildu ziren. Mertzzi.

dato historikue

100

urte dira *Santageda* eta *Aitzumarría*, bi aizkolari handiek lehen aizkora apustua jokatu zutela.

esaldiye

“Profesionala izatea bakarrik ez da dena politikan. Bokazioa ere behar da; ilusioarekin eta utopiarekin lotuta egon behar du”

Eli Galdos
(politiko ohia)

liburutik ttak

“1972an, Franco eta bereek Madrid egunkaria betirako isildu zutenean, makina bat gorabehera gertatu zen bazterretan: langileen grebak, ikasleenak, batzuen eta beste manifestazioak, atxilotu eta zauritu ugari, poliziak hildako langile eta ikasleak... Gertatzeagatik, Lorenzo Zabala enpresariaren bahiketa ere urte hartantxe gertatu zen, eta Donostiako egunkari batean irakurri ahal izan dudanaren arabera, ‘Poliziak 34 ETako partaide’ atxilotu zituen, gauetik goizera, bahiketa harekin zerikusi izan zezaketelakoan... A zer nolako ‘komandoa’, eh!”

‘Franco hil da. Zeruko Argia (1973-1975)’, Pilar Iparragirre. Komunikazio Biziagoa SL argitaletxea. 2002. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



**HASERREAK
ETA DESAFIOAK**

Gaur egun ere ez dugu asko behar izaten haserretzeko, eta lehen ere antzeko. Azpeitiko historian zehar aurki daitezken zenbait kontakizun aipatu nahi genituzke gaurkoan, oso labur bada ere.

1720an Amu baserriko lurretan gerizak lapurtu zituen nonbait Inazio Urkizu errementariak eta honela zioen etxeoandreaki epaitegira eramango zuela esatean: “Lo gutxi egiten dugu errementariok eta lau edo bost elkartuko gara”, bere emaztea bakarrik zen orduan. Ez zegoen emakumea atzera egiteko eta honela erantzun zion. “Gure senarrarekin ere beste hainbeste elkartuko dira”. Errementariak, ordea, azken hitzak: “Lekuko gutxi izan ohi da gauean”.

Urte berean sortu zen eztabaida Joan Lopez Etxaniz eta Miguel Unanueren artean, beraien

kaparetasunari buruz, lehenak esanez herrian zuela egina eta bigarrenak, berriz, Nafarroan. Lekuko izan zen Frantzisko Zuolak zioenez, haserrea indartzen joan zen, borrokan hastearaino, lehenak bigarrenari emakume puta eta lapur baten senarra zela esatean.

Miguel Garmendia indartsu agertu zen Fermin Beriztainen aurrean guztiak menperatzeko prest zela esanez. Bigarrenak indar kontuan ez ziola Izarraitz mendiko inori barkatuko erantzun zion eta, jakina, ondoren borroka, eta lehena zaurituta.

1722an Joan Artetxek esaten zuen, nola hankekin lurra astintzen eta makilekin lurra jotzen zuten desafiatuz bezala Joxe Larrate, Bartolome Arzuaga eta beste bi lagunek, Larrate konturatu zenerako izugarritzko jipoia eman zioten.

garai bateko Azpeitiye ...Pakita Larrañagak kontatua

Jairik gabeko astea

Etxeko lanak gaur egun ere ez dira erraz egitekoak, baina orain dela urte batzuk etxe batzuetan urik ez zegoen

Ihintza Argiretze

Arropak eta ontziak garbitzea, aspiradora, eskoba eta fregona pasatzea eta abar. Gaur egun, etxeko lanak gogorak direla-eta kexatu besterik ez gara egiten. Noizbait galdetza jarriz gero geure inguruan, istorio gogor eta politikak entzun daitezke aurreko belaunaldiak kontatuta. Oraingoan, garai bateko Azpeitiko etxeoandreen bizia nolakoa den jakiteko, Pakita Larrañagaren sukalderraino sartu da Uztarría.

Pakita Larrañaga ederki gogoratzen da bere gurasoen etxean iturritik ura zetorrela eta orain bizi den etxera bizitzera etorri zenean urik ez zegoela. “Zenbat aldiz emango ote nion nik kanilari ura edateko asmotan!”. Baina ur falta ez zen edateko bakarrik, Pakitak hamar seme-alaba izan zituen eta haien arropak ere garbitu egin behar ziren nonbait. “Etxe azpian dagoen putzura joan behar izaten genuen arropak eta

ontziak garbitzera. Inguruko baserrietatik astoetan etortzen ziren batzuk putzura eta baziren buru gainean garbitzeko traste guztiak ekartzen zituenik ere!”. Abantailak izugarriak izan dira ordutik baina badu zerbait kenduko ez diotena, “*ekonomika*”. Oraindik badu bat bere sukaldean eta ez du saltzeko. “Gogoan dut nola pasatu nuen gau oso bat sua egiten senar zenaren Urolako trajea lehortu nahian”.

Argi indarra ere ez zen gaur egungoa bezalakoa eta ekaitz txikienarekin ere argirik gabe gelditzen omen ziren. “Behin batek esan zidan ez konpontzeko geure argin indar kaxa, kexatzeko eta emateko *lata* eta horrelaxe jarri zuten argi indarra ongi iristen zela”.

Etxeko lanez gain —baserrian bizi izan denez beti— baserrian zituzten produktuak saltzera ere jaisten zen kalera. “Garai hartan ez zen orain bezala astearteetan azoka egiten, orduan egunero egoten zen eta egunero jaitsi behar izaten genuen. Bagenituen esnea parti-



Badiolegin, antzezten. / IMANOL ELIASEN ARTXIBOA

● **LEGARRAK ARINTZEN.** Haserrea indartzen joan zen, borrokan hasteraino, emakume puta eta lapur baten senarra zela esatean

Haserre guztiak ez ziren berdin amaitzen. Adibidez, 1646an Domingo Gerrenzurri eta Joan Lopez Aginagaren artekoa. Hirugarren lagun batek amaitu zuen eztabaida eta elkarrekin afaltzeko geldituko ziren. Ez dakiguna da afari hori zertan gelditu zen.



Garai bateko etxeko andreak. / IMANOL ELIASEN ARTXIBOA

“Etxe azpian dagoen putzura joan behar izaten genuen arropak eta ontziak garbitzera”

Pakita Larrañaga



tzera joaten ginen etxeak eta partiketak egin ondoren azokara joaten ginen”. Pakitak ba omen zuen “bera bezalako asto txiki bat”, oso gaiztoa omen zen. Astotegian bateren batek molestutzen zuelako soltatzten bazuen, etxera bueltatzen omen zen bera bakarrik.

URTARO TXARRA. Udazkena urtaro txarra omen da. “Garoa biltzera joan behar izaten zen leku guztietara”, gogoratzen du. “Han joaten ginen oinez edo bestela bizikleta alokatuta basora egun osoa garoa biltzera”. Baina ondoren negua eta bere gustuko gauzak egiteko denbora izaten zuen. “Niri jostea gustatzen zait eta neguan bakarrik izaten nuen denbora”.

Gaur egun kexatu egiten gara baina badaude bere garaian kexatzeko denborarik ere izan ez dutenak, eta entzungo zituzten inor ere ez zutenak, orduan asteak jairik ez baitzuen.

abizena

UNANUE

● **Banaketa semantikoa.**

- Unano-: anbulu-sail.
- -ue: -ekoa.

● **Esanahia.** Anbulu sailekoa.

● **Armarria.** Madrilen 1664an emandako agiri baten arabera: urrean zuhaitz berde bat, bere adarburuan zilarrezko izar bat duela eta sablezko otso bat duela, enborra okertzen duela. Puntan urezko olatuak, urdinean eta zilarrean. Gulesko bordurak, urrezko zortzi aspekin. Beste batzuk bordurak kendu egin dizkiote.

● **Abizenaren kokapena.**

- Artiga.
- Ibaeta auzoa (Donostia).

● **Abizenaren hedapena.**

- Azpeitia (1776).
- Mutriku (1715-1724).
- Antzuola (1747).
- Aia (1672).
- Bilbo (1819).
- Donostia (1566).

‘www.paisvasco.com’ webguretik hartua dago.

komunikabidiek

DEMOKRATIKOA AL DA IBARRETXE EGITASMOA?

Egunkariak edozein publizitate jartzen al dute?

Ez. Beraien printzipioen

kontra doazenak ez, bestek bai. Hala, DV-k urriaren 6an Fundación para la Libertad elkartearen diptikoa banatu zuen, enkartean: *Demokratikoa al da Ibarretxe Egitasmoa?* Egurra ematen zion planari, eta Espainia gortzen zuen. Azpeitian 1.400 enkarte etxeratu ziren...



gertuko pasadizue

FUTBOLEKO FITXAN TORERO JANTZITA

● **JABIER AGIRRE:** "Cirilo Astigarragak, *Carnicerito de Azpeitia* bezala ezagun zenak, Txalintxo futbol taldearekin partidu bat baino gehiago jokatu zuen. Federatzeko, beste jokalariei bezalaxe, argazki bat eskatu zitzaion. Baina argazkia ez zuen ekartzen eta gertatu behar zuena pasatu zen: bere fitxan Cirilo torero jantzita zegoeneko argazkia jarrizela. Imajinatzen al duzue zer pentsatuko zuten federazioan? Azpeitian ez daukagu erremediirik!"

'Lagun Onak 50. urteurrena 1944-1994' liburu-tik hartua. Lagun Onak argitaratua. 1994. urtea.



musikie

'SAKABI'-REN BIOGRAFIA KALEAN DA

Zorioneko dira trikitixa eta soinu txikiaren zaleak, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak *Sakabi, soinu txikiaren handitasuna* biografia liburua argitaratu berri duela. Iñigo Aranbarri idazle azkoitiarrak idatzi du Faustino Azpiazu Salegi *Sakabi*-ren biografia liburua. Joan den hilaren 30ean aurkeztu zen liburua Donostian.



osasune Julian Bereziartua (medikua)



GATZA ETA IODOA OSASUNARENTZAT

● **GATZA.** Beste elikagaiekin aberastea eskatuko nuke

datziari jarri diodan izenburua dela eta, pertsonalki, bidegurutze batean nago; bietako bat: propaganda ofizialari arrazoia eman edo nire jarrera defenditu.

Osasun Sailak hau esaten digu: "Biztanlegoaren %75ek, behar baino iodo gutxiago kontsumitzen du" eta gatz arruntaren orde, iododun gatz sukaldian erabiltzea gomendatzen du. Nik dakidanez, egunero pertsona bakoitzak kontsumitu behar duen gatz kopurua hiru gramo da eta elikagaiek badute horrenbeste gatz, gehiago kontsumitzeko beharrik gabe.

Oker ez banago, gatz aberastea beste elikagai batzuen bitartez egitea eskatuko nuke: ogia, ura...

Arrainak eta itsaskiak dira iodo-iturri nagusiak; ondoren beste haragi motak eta barazkiak daude. Erosioak eragindako lurretan —Nafarroako Erriberakoetan adibidez—, iodo eza nabari dute hango uztek.

Kontuan hartzekoa da, inguruan gertatzen diren tentsio altuak, gatz ez hartzearekin sendatzen direla.

Tentsioa altua dutenak asko dira eta arriskuak ere handiak dira. Buruko odol jarioak eta bihotzeko gaixotasunak. Horregatik, nire ustez, gure jateko ohiturak beste zenbait produktuez osatu behar genituzke: perejila, oreganoa, tipulina, baratzuria eta abar... Eta iodoa beste era batera hartu.



AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)




ARTE ETA DISEINU IKASTEGIA


> Talla 19:30/21:00
> Pintura (helduak)..... 17:30/19:00
> Marrazketa eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00

Astelehenetik ostegunera

Julian Elorza 4 - 1
943 - 81 28 08



ORDULARI



JOSE ARTETXE, 10
Tel. 943 81 52 44

42 KILOMETRO 22 ALDIZ

Juan Peña lasterkari azpeitiarrak aurten 23. aldiz korrituko du Donostiako maratoia; 19 urterekin irten zuen lehen aldiz, eta “denetik tokatu” izan zaio



filmitze Oruesagasti

Hilabete honen bukaeran korrituko da berriro Donostiako maratoia, 26. aldiz. Juan Peña azpeitiarra 22 aldiz izan da maratoian. “Hamabigarren edizioan katarroagatik ez nintzen atera eta jarraian zetozen beste bi urteetan utzi bezala egin nion. Hala ere, arra banuen barruan eta berriz ere irtetzen hasi nintzen, 22. edizioan izan ezik, urte horretan lesionatuta bainengoen”, esan dio Juan Peñak Uztarriari.

19 urte zituela hartu zuen parte lehen aldiz Peñak Donostiako maratoian. “Hasierako urteetan, hiru mila lagun izaten ziren maratoian lasterka, gero mila lagun ingurura jaitsi zen eta iaz, berriz, bi mila pertsonak irten genuen. Denbora pasatu ahala, berriro indarrean dagoela dirudi”, dio Peñak.

Lasterkari azpeitiarraren hitzetan, denborari bai, baina postuei ez omen dio begiratzen. “Ez naiz neure markaren bila joaten. Nire denborarik onena 1993. urtean egin nuen: 2.49.49. Gaur egun, lasterketa hiru orduren azpitik bukatzen saiatzen naiz”.

Donostiako maratoian irten duen urte guztietan “denetik tokatu” zaio: “Bero handienetik hasi eta hotza, eurtan ere lasterka egin izan dut. Antolakuntza aldetik ere 26 urte hauetan ibilbidea aldatu egin da. Nik uste dut hobera egin duela; hala ere, urterot izaten dira arazoak trafikoarekin”.

BETI DESBERDINA. Lasterketa guztiak ezberdinak izaten direla dio Peñak, “baina 22 urtetan norbere buruari neurria hartzen ikasten da. Urte guztian zehar kirola egiten dudan arren, lasterketa baino lehena-goko azken bi-hiru hilabeteak maratoia prestatzeko hartzen ditut”. Aurten, 23. aldiz.

Ez daki noiz arte segituko duen Juan Peñak lasterketa horretan parte hartzen. “Ez dut helburu finkorik, ahal dudan bitartean jarraitu egingo dut. Maratoi hau nire zaletasunean *pastelaren ginda* da”.


Kirola egiteko zaletasuna beti izan omen du azpeitiarrak. “Nik urte osoan egiten dut zerbait. Herri mailan ere jende asko ikusten da kirola egiten eta hori ederra da. Azpeitian zaletasun handia dago lasterketan egiteko”. ●



URTEA	DENBORA
1978	03:50:25
1979	03:15:56
1980	03:03:21
1981	03:06:22
1982	03:02:33
1983	03:05:50
1984	02:59:52
1985	02:50:09
1986	02:59:36
1987	03:07:07
1988	03:10:36
1989	-
1990	-
1991	-
1992	03:09:47
1993	02:49:49
1994	03:05:25
1995	02:54:44
1996	02:55:16
1997	02:56:09
1998	02:56:07
1999	-
2000	02:57:05
2001	02:54:21
2002	02:55:25

Gurutze Eizmendi

aktorea



NEREA URANGA

“Herriz herri geure burua salduz ibili beharko dugu”

Kepa Urbeta

Gurutze Eizmendi Lakrikun antzerki taldeko partaidea da, taldea bera sortu zenetik. Hamar urte daramatza antzerkigintzan eta aurten Antzerki Topaketetan euren zazpigarren lana estreinatuko dute: *Agorafobiatuta!!*, antzerkia pairatzen ari den egoera tamalari umorez erantzuteko bidea.

● **Gurutze, zein zen umetan zenuen ametsa?**

Uf! Antzerkiarekin zerikusirik ez zuen behintzat. Arropa mundua gustatzen zitzaidan asko.

● **Horrela izanik, nola hasi zinen antzerkian?**

Umetako garaiak ondo pasatuta nituela hasi nintzen antzerkian. Orain dela hamar urte Azpeitiko Ikasberri Ikastolak antolatatu zuen antzerki ikastaro batean parte hartzeko aukera izan nuen. Hura amaitzean antzerkiko gogoz geratu eta zerbait gehiago egin behar genuela erabaki genuen.

● **Antzerkitik telebistara jauzia ere egin zenuen...**

Bai. *Goenkale*-n parte hartu nuen bolada batez.

● **Zer ezberdintasun dago telebistaren eta taularen artean?**

Telebista artifizialagoa da, eta lasaiagoa ere bai. Antzerkian nerbio gehiago izaten dut. Jendaurrean eta zuzenean izatean larritasun egoerak izaten dira eta inprobisazioak asko balio du. Baina xarma handiagoa du aurrean jendea izateak aurrean kamera izateak baino.

● **Azpeitian Euskal Antzerki Topaketak izan ohi dira urtero. Esan al daiteke zaletasuna badela herrian?**

Ez, nik uste dut antzerki zaletasuna galtzen ari dela; ez Azpeitian bakarrik, leku guztietan. Gaur egun aurpegi ezagunek parte hartzen duten emanaldiek dute arrakasta, topaketak ere profesional mailan antolatatu ohi dira. Talde amateurrek lan asko egin behar izaten dugu; laguntza gutxi jasotzen dugu udaletatik. Segurura jotzen dute aretoak bete daitezen.

● **Zuek *Agorafobiatuta!!* antzezlan berriekin parte hartuko duzue XXI. Euskal Antzerki Topaketetan. Zer-nolako ikuskizuna da?**

Alaitz Olaizolak idatzitako antzezlan da, agorafobia duen emakume bati buruzkoa. Etxean lasai egon nahi du, bakarrik egon nahi du, baina ezingo du. Ez daki agorafobia duela eta beti izango du norbait etxean

bakarrik egoten utziko ez diona. Komikoa da.

● **Zuen obra erakusteko asmoa izango duzue. Aukera asko izaten al da antzerkiaren munduan?**

Garai hobekak izan ditugu. Asmoa badugu baina nonbait Eusko Jaurlaritzak laguntzak ematen ditu herrietara talde profesionalak ekartzeagatik eta horrek kalte egin digu. Guk bi urtez jarraituko dugu lan honekin baina herriz herri geure burua salduz ibili beharko dugu.

● **Lan asko eta sari gutxi, beraz.**

Bai. Prestaketa asko eskatzen du, arropak, dekoratua, argiak, entseguak astean bi aldiz eta azkeneko astean egunero. Lan asko, denbora asko eskatzen du eta ez dugu batere kobratzen. Gustatu egiten zaigulako gabilta, bestela...

● **Inoiz gertatu zaizun pasarte bereziren bat?**

Behin Aizarnan antzeztan ari ginela, Alaitz Olaizolak orduan Margaren papera egiten zuen eta gidoian ez zegoen galdera bota zidan eta ni zer esan ez nekiela geratu nintzen. Aurretik ere zerbait gaizki egin genuen eta orduan nire onetik atera eta "bueno Alaitz!" atera zitzaidan. Gero dekoratua-ren atzealdera joan eta egundoko errieta bota nion.

Alaitz Olaizola eta Gurutze Eizmendi, 'Garalderen Requiema' antzeztanean.



Lakrikun antzerki taldeko kideak. / UZTARRIA

Lakrikun motz-motzean

● Lakrikun antzerki taldeak hamar urte daramatza lanean, Idoia Urangaren zuzendaritzapean. Lakrikunen sorreratik hona aldaketak egon dira partaideetan. Batzuek utzi egin dute. Hala, jende berria behar eta deialdia ere egin dute; bi gazte hasi dira aurten taldean.

Zazpi lan egin dituzte oraingo *Agora-gofobiatura!!* berri honekin, eta zazpi obra

horietatik lau Alaitz Olaizolak idatzitakoak izan dira. "Gustura" daude lanek izan duten harrerarekin eta guztien artean bat azpimarratzen dute: *Ez dira berdinak antzekoak baizik*; 17 emanaldi egin baitzituzten.

Bestelako lan txikietan, *Greban gaude*-rekin aurrera begira eskaerak dituzte; emakumeen arazoez mintzo da. ●

LORE SORTAK
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

ACADEMIA DE FRANCES
FRANTSES AKADEMIA

apunta
zaitez!

allons y **15 00 92**

Bustinzuriko Arrabala, 12 - 1

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

egin publizitatea

uztarrria-n

zure iragarkia 7.000
lagunek ikusiko dute

telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK - TOKI	
PUBLIKOAK	
Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA	
Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112

KOMUNIKABIDEAK	
Uztarrria herri aldzakaria	15 03 58
Azpeitian Zer?	81 11 00
Deia (berriemailea)	72 57 75
DV (berriemailea)	15 09 94
Berria	943-30 40 30
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
ArrateIrratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35

ALDERDI POLITIKOAK	
EAJ	81 30 40
Habea	---
EA	81 00 11

SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

IKASTETXEAK	
Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesusen Alabak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Milagrosa	81 63 80
Urola BHI	15 02 28

KULTURA - EUSKARA	
Baite Euskara Elkarte	15 03 58
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00

BESTERIK	
UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Euskaltel-informazioa	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

farmaziyek gáuez

AZAROAK 8-9-17-18	
Ruiz (Azkoitia).	85 19 66
AZAROAK 10-15-16-27	
Aranburu.	81 13 50
AZAROAK 11-28	
Beristain.	81 19 49
AZAROAK 12-24-29-30	
Etxebeste.	81 59 74
AZAROAK 13-25	
Garcia.	81 12 74
AZAROAK 14-26	
Zulaika.	15 03 34
AZAROAK 19-20-21	
Gisasola (Azkoitia).	85 12 35

gune publikuek irikite

UDALETXEA	
Astegunak:	9:00-13:30
Larunbatak:	9:00-13:00

IXPIXIOA	
Egun osoz irekita	

IGERILEKUA	
Astelehenak:	14:00-21:00
Beste astegunak:	7:00-21:00
Larunbatak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA	
Astelehenak:	9:00-13:00, 15:00-21:00
Beste astegunak:	15:00-21:00
Larunbatak:	10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA	
Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00

Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegiak

JOATEKO	
AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA	
Astegunak:	6:50 (1), 7:40 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)
Larunbatak eta abuztuko astegunak:	7:40, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15
Igandeak eta jaiegunak:	15:10, 19:15
Enpresa:	La Guipuzcoana
Oharrak:	1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

AZPEITIA-ELGOIBAR-EIBAR	
Astegunak:	6:50, 13:50, 15:50, 19:50, 21:50
Larunbatak:	8:50, 15:50, 19:50, 21:50, 0:30, 2:30, 4:30
Igandeak eta jaiegunak:	8:50, 19:50, 21:50
Enpresa:	Eusko Tren

AZPEITIA-EIBAR-BILBO	
Astegunak:	6:35, 13:30
Enpresa:	Piper Unibertsitate Elkarte

AZPEITIA-AZKOITIA	
Astegunak:	6:55, 7:25, 8:25, 9:25, 9:25, 10:25, 11:25, 12:25, 13:25, 14:25, 15:25, 16:25, 17:25, 18:25, 19:25, 20:25, 21:25, 22:25
Asteburuak eta jaiegunak:	7:00, 7:55, 8:55, 10:55, 11:55, 13:55, 14:55, 16:55, 18:55, 19:55, 21:55
Enpresa:	EuskoTren

AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA	
Astegunak:	6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10, 21:50
Asteburuak eta jaiegunak:	7:25, 9:25 (2), 10:25, 12:25, 13:25, 15:25, 16:25, 18:25, 20:25, 21:25, 22:20
Enpresa:	EuskoTren
Oharrak:	1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ	
Astegunak:	6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10
Asteburuak eta jaiegunak:	15:40, 18:10, 20:10
Enpresa:	EuskoTren

AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitela)	
Astegunak:	6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25
Asteburuak eta jaiegunak:	7:55, 8:55, 10:55, 11:55, 13:55, 14:55, 16:55, 18:55, 19:55, 21:55
Enpresa:	EuskoTren

AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA	
Astegunak:	6:55, 15:10
Asteburuak eta jaiegunak:	6:55, 11:10
Enpresa:	EuskoTren

GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK			
Aldalur	85 27 18	Bizkaibus (Eibar-Bilbo)	902 22 22 65
EuskoTren	15 06 77	Piper Unibertsitate Elkarte	85 25 87
La Guipuzcoana	85 11 59	Taxiak	81 13 07

ITZULTZEKO	
DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA	
Astegunak:	7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30
Larunbatak eta abuztuko astegunak:	8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00
Igandeak eta jaiegunak:	18:00, 20:00
Enpresa:	La Guipuzcoana
Oharrak:	1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik

EIBAR-ELGOIBAR-AZPEITIA	
Astegunak:	8:00, 15:10, 17:10, 21:10
Larunbatak:	10:10, 17:10, 21:10, 1:30, 3:30, 5:30
Igandeak eta jaiegunak:	10:10, 21:10
Enpresa:	Eusko Tren

LEIOA-BILBO-AZPEITIA	
Astegunak:	14:00, 20:00
Enpresa:	Piper Unibertsitate Elkarte

AZKOITIA-AZPEITIA	
Astegunak:	7:00, 8:05, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 21:40
Asteburuak eta jaiegunak:	7:15, 9:15, 10:15, 12:15, 13:15, 15:15, 16:15, 18:15, 20:15, 21:15, 22:10
Enpresa:	EuskoTren

ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA	
Astegunak:	6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 22:00
Asteburuak eta jaiegunak:	6:35, 7:30, 8:30, 10:30, 11:30, 13:30 (2), 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 21:30
Enpresa:	EuskoTren
Oharrak:	1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da

ZARAUTZ-ZESTOA-AZPEITIA	
Astegunak:	7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45
Asteburuak eta jaiegunak:	16:30, 19:00, 21:00
Enpresa:	EuskoTren

ZUMARRAGA (hospitela)-AZPEITIA	
Astegunak:	7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30
Asteburuak eta jaiegunak:	8:45, 9:45, 11:45, 12:45, 14:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45
Enpresa:	EuskoTren

TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA	
Astegunak:	9:30, 18:30
Asteburuak eta jaiegunak:	9:30, 12:00
Enpresa:	EuskoTren

'Palestina Hotela' liburua

Joseba Iriondo

1969an jaio zen, Azpeitian. 1993tik EITBko kazetaria da. Euskadi Gaztean egin zituen lanbideko lehen pausoak. Hiru urtez berriemaile izan zen Madrilén. Albistegietako aurkezlea da. 2001eko urte amaieran Afganistaneko mugan izan zen. Bagdadeko lanagatik Ortega y Gasset kazetari-tza saria jaso zuen Espainiako kazetariekin batera.

palestina hotela

"Not american; I'm basque"



Joseba Iriondo

- **LIBURUA:** Palestina Hotela • **IZENBURUA:** "Not american; I'm basque"
- **EGILEA:** Joseba Iriondo • **ARGITALPENA:** Elea argitaletxea • **URTEA:** 2003 • **GENEROA:** Gerra kronika
- **ORRIALDEAK:** 250 • **AURKEZPENA:** Azaroaren erdialdean.

Kazetaria, albistegietako aurkezlea, berriemaile lanetan Madrilén, Afganistanen eta Iraken jarduna. Hona haren liburuaren pasarte bat

Lehen zaurituak, lehen hildakoak

Washingtonetik iragarri ziguten "erasoen gortzea" hoteleko teilatutik ari ginen ikusten. Eta argi geneukan behintzat hura ez zela aurreko egunetakoaren antzekoa. Bagdadeko ilunpean Joserrak kamera alde batetik bestera mugitzen zuen, hiriko bazter guztietan ikusten ziren leherketei jarraituz, denak harrapatu guran. Ez zen lan erraza, zeruko iluntasuna gorritz margotzen zuen hurrengo eztanda non gertatuko zen asmatu behar zuelako, ia-ia. Danbateko indartsuak ziren oso, nahiz eta ibaiaren bestaldean ikusten ziren, lauzpabost kilometrora. Pilota gorria lehendabizi, ke beltzeko zutabea hurrena eta 3.000 kilometro egin ondoren bete-betean jo zuten misilen zarata azkenik. Bi egun ziren "Justizia Iraunkorra" hasi zela, eta ostiral gaueko hura zen ordura arteko erasorik bortitzena. Gau hartan sumatu genituen lehen aldiz gero hain ezagun egin zitzaizkigun dardarak, erasoaldi bortitzenetan etxe guztietako paretak guztiak mugitzen zituztenak.

"Ekaitzaren aurreko barealdia" zirudiela esan nuen ostiral goizean telebistaz egin genuen kontaktetan. Errezo eguna izanik, herritarrak lasai utzi zituzten amerikarrek, meskitetara ezustekorik gabe joan zitezten. Hasiera-hasieratik saiatu



BONBAK. Bonbardaketa bati Bagdadén aterako argazki bat. Liburuko argazki bat da.

zen komando zentrala bonbardaketak zibilen kontrakoak ez zirela erakusten, Saddam Huseinen agintaldiaren aurkakoak baizik. Esan gabe doa, ordea, hil zuten zibil kopurua ikusita, ez zutela asmo hori bete.

Irakiarren alerta sirenak jo eta su ari ziren, erasoaldi ezberdinekin herritarrak adi egon zitezten. Hegazkinen kontrako bateriek ere gelditu gabe erantzuten zieten erasotzaile ikusezinei, lehen aldiz hegazkinak erabiltzen ari baitziren britainiarrek eta estatubatuarrek. Zarata ezberdina eta nabarmena egiten dute F-18 eta F-16ek, baita F-117 ikusezinek ere. Ilunpean sartzen ziren hegazkinok hiriaren bihotzeraino, lurretik oso gertu indarrean jarraitzen zuten radareek antzeman ez zituzten. (...)

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

PILDAIN
inmobiliaria

Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURORAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

EPELDE INMOBILIARIA

Goiko Kale, 1 - Behea
Tfona/Faxa: 943 15 03 31
20730 AZPEITIA

Otamendi
Bitai Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



argazkiyek: Natatxa Films

'Bailara', Natatxaren azken laburmetrajea

● **NATATXA.** Talde hau orain hiru urte sortu zen. Hasierako hiru kide izatetik sei kide izatera iritsi dira. Taldeak zine eta bideogintza sendotzea du helburu eta, bide batez, Azpeitian arlo honekiko dagoen hutsunearekin amaitu.

● **'BAILARA'.** Iaz, Beizaman, grabatu zen laburmetrajea. Eta Beizamako festetan estreinatu zen, gero Santiyotan Orkatzen eman zuten eta Gabonetan Soreasun emateko asmoa dute Natatxa taldekoek.





1. 'BAILARA'.

Bailara Natatxa Films taldearen azken laburmetrajearen grabaketa lanak Beizama inguruan egin ziren.

2. BASOAN.

Basoan, ikusleari begira, hurrengo biktimaren bila, laburmetrajeko pertsonaietako bat.

3. ESPEKTROA.

Mikel Zubizarreta azpeitiarrrak espektroaren paperean sartu behar izan zuen laburmetrajean.

4. BEGIRADA.


Iñaki Errazkin azpeitiarra izan zen laburmetrajean parte hartu zuenetako beste bat.

5. ITXOITEN.

Patri Acedo zestoarrak obrako neskaren papera egin zuen.

6. LASTERKA.

Karlos Ibarbia azpeitiarra, korrika bizian, alde egin nahian ikus daiteke irudi honetan.





7



8

7. GALDEZKA.

Karlos Ibarbia azpeitiarra laburmetrajeko protagonista nagusia eta Montse Aranbarri azpeitiarra, Beizamako Agiñondo baserriko atarian.

8. UMEAK.

Bailara-n parte hartu zuten, Miren eta Leire bi neska gazteak filmeko une batean auto baten barruan eserita.



PERRETXIKOAK BILTZEKO ARIKETA

Perretxikoak sobera daude mendian. Ez gara joaten euren bila. Ez dugu perretxikoak biltzeko ariketa lasaigarri hori praktikatzen. Ez dugu denborarik, ez dugulako denborarik hartzen. Baina haiek (perretxikoak) gure zain egon ohi dira, ez badute beste ezer egiteko behintzat. Zuhaitz eta belar umela lagun dituztela, patxada osoz igarotzen dituzte azken bizi egunak. Ez diote azken segundoen hondarrei beldurrik. Zain egoten ikasi dute, denborarik gabeko uneak sortzen eta une horiek errugabetasun sentsazioarekin igarotzen. Natura-rekin jolastu ohi dute, jolas naturaletan, biluzik, lotsarik gabe, lotsagabeki, inori tranparik egin gabe, inori trabarik egin gabe.

Perretxikoak ez daude sobera azoketan, ezta supermerkatuetan ere. Bertara joaten baikara erostera, ordaintzera. Apaletako plastikozko otarretan ez dira gure zain egoten. Bizkarrean prezioaren txarteltxoak dutela igarotzen dute hil ondorengo denbora, prezioak dituzte jakina!, ia guztiak bezala, ia gizarte osoan bezala.

Kaixo irakurle. Udazkenarekin batera iritsi zaizkigu presak, ezinegonak, lo faltak, estres azarnak... eta hori guztia aurretik jakinda, gure burua besteen aurrean irudi onez saltzen erakutsi digutelako. Gure buruari ez diogu segundo bat bera ere eskaintzen. Ezta lo gaudenean ere. Erlojuak markatzen dizkigu pausoak, erlojuak adierazten digu ondokorekin zenbat denboraz egon behar dugun eta hurrengorako noizko geratu gaitezen berriro. Ja!, beraz, guk ez dugu ezer erabakitzen, beno zeozer bai, gure erabakitzeko ahalmena sexu harremanen iraupenera mugatzen da, hori ere denbora gutxirako.

Ez nuke perretxikoen bilketa sexu harremanekin lotzerik nahi, baina bai pare bat antzekotasun azaleratu. Perretxikoak biltzera (eta ez horretara *dedikatzen* direnak) joateko ariketa lasaigarria praktikatzenean denborak funtzioa galtzen du eta txangoari ez zaio bukaerarik jartzen. Sexu harremanetan ere horrela beharko luke, hasteko behintzat erlojuari pilak kendu edo *mesanotxean* uztea litzateke erabaki zuzenena. Bigarrenik, perretxikoak biltzera bakarrik joateak badu xarma berezi bat, eta bilketa hori norbaitekin edo norbaitzuekin konpartituz gero beste plazer mota bat senti daiteke.

Beraz, bizitza lasaiago dastatzen ikasteko osagaiak ondorengoak lirateke, besteak beste: autobusa, perretxiko bilketa, irribarre ikastaroa, bizikleta irteera, perretxiko bilketa, ametsez beteriko lo kulux-

KOMENTARIOA.

Gora
Euskal Herri
euskalduna!,
baita ere

kak, sex shop batera bisita, perretxiko bilketa... agur, ez!

...Euskal Herriari burla egin diote, eta modurik okerreanean, bihotzean kaio zikin horren mokokada hilgarria sartuz. Euskararen egarri, ahoa lehor geratu zait... ez noa orri hauetatik, ez horixe, ez naute hitz eder hauen putzutik aterako. Gaur bertan jakin dut notizia, hileta ilunenaren pare, ez dut inguruan jendearen erreakziorik nabari, momentuz ez behintzat, baina zain egongo naiz. Berriro gure hizkuntza, gure kultura, gure bihotzak, harria, herria, zikindu dituzte atzerritar boteredunek. Baina gauzatxo bat bururatu berri zait. Euskara egunero erabiltzea. Badakit ez dela gauza berria, baina aldioro beharko genituzke horrelako burutazioak. Ondo segi.



AZAROKO AGENDA

As. At. Az. Os. Os. La. Ig.

				1	2				
3	4	5	6	7	8	9			
10	11	12	13	14	15	16			
17	18	19	20	21	22	23			
24	25	26	27	28	29	30			

AZAROAK 3 (astelehena)

ERAKUSKETA.

Argizaiola eta tailatutako lanen erakusketaren irekiera eguna. Azaroak 21 arte irekita izango da. Orduetgia astelehenetik ostiralera artean 18:00etatik 20:00etara. Anxietia Etxean.

AZAROAK 4 (asteartea)

IPUIN KONTAKETA.

Udal Liburutegiak antolatutako ipuin kontaketa sortaren barruan Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailakoei zuzenduta Laminak taldearen ipuin kontaketa. 18:00etan. Enparanen, Udal Liburutegian.

AZAROAK 7 (ostirala)

ANTZERKIA.


XXI. Euskal Antzerki Topaketen aurkezpena. Udaletxeko Areto Nagusian. 12:00etan

AZAROAK 8 (larunbata)

ARTEA.

Urolaldeko Artisten XXII. Erakusketan parte hartzeko arte-lanak aurkezteko epearen azken eguna. Lanak Urolaldeko

azaroak 25 (asteartea) • 15:30ean • Enparanen



INDARKERIAREN AURKA. Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunak islarik izango du Azpeitian ere, Emakumeen Mahaiak eta Udaleko Gizarte Sailak *Solo Mia* filmarekin gaiari lotutako zine foruma antolatu dutelako. 15:30ean Enparan Dorretzeko aretoan izango da eta ondoren Gloria Martin psikologoarekin foruma egingo da.

edozein artistak aurkez ditza- ke, Anxietia Etxean, 18:00- etatik 20:00etara bitarteko or- dutegian.

ANTZERKIA.

XXI. Euskal Antzerki Topake- tak. *Bazen behin... guxi gora- behera.* Kanpingags taldeak taularatuko du. Soreasu An- tzokian. 18:00etan.

AZAROAK 9 (igandea)

ABESBATZAK.

2003ko Udazkenean Abes- batzak. Azpeitiko Nemesio Otaño Abesbatzaren emanal- dia izango da. Zuzendari la- netan Felix Zabala arituko da. 13:00etan. Loiolako basili- kan.

ANTZERKI FAMILIARRA.

XXI. Euskal Antzerki Topake- tak. *Hitzak patriketan* antze- z- lana. Hankatxo produkzioak taularatuko du. Soreasu An- tzokian. 18:00etan.

AZAROAK 15 (Larunbata)

KALE ANTZERKIA.

XXI. Euskal Antzerki Topake- tak. Kale antzerkia egun oso- an. *Top sekret-mamutxak.* Kukubiltxo antzerki taldeak prestatua. Enparantza Nagu- sian eta kaleetan. 13:00- etan.

KALE ANTZERKIA.

XXI. Euskal Antzerki Topake- tak. *Eta Zanga* antzezlan- a. Kalez kale produkzioak pre- statua. Enparantza Nagusian eta kaleetan zehar. 18:00- etan.

AZAROAK 16 (igandea)

MENDIA.

Lekandara egun osorako mendi irteera. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 08:00etan plazan.

ABESBATZAK.

2003ko Udazkenean Abes- batzak egitarauaren barruan Azpeitiko Julian Barrenetxea Abesbatza ariko da. Zuzen- dari lanak Jaime Amenaba- rrek egingo ditu. 12:30etan. Urrestillako elizan.

FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak-Baskonia. 17:00etan. Garmendipen.

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35

Aliur

OKINDEGIA KAFETEGIA

Loiolako Inazio Hiribidea 6
943 81 38 01

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

ATC TORREALDAY
ahakulari kontseilarak

Iberotarren plaza, 7 behea
Tfnoa: 943 15 05 09
Faxa: 943 15 16 74
azpeitia@atctorrealdays.com

AZKOITIA

ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

● **ANTZERKI FAMILIARRA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketak. *Inaxitoren Ametsak* antzezlana. Trikuharri taldeak antzeztuta. Soreasu Antzokian. 18:00etan

AZAROAK 21 (ostirala)

● **IPUIN KONTAKETA.**

Udal Liburutegiak antolatutako ipuin kontaketa sortaren barruan Haur Hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailakoei zuzenduta Laminak taldearen ipuin kontaketa. 18:00etan. Enparanen, Udal Liburutegian.

● **ANTZERKIA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketak. *Pakita* antzezlana Txalo taldearen aldetik. Itziar Ituñoren monologoa izango da. Estreinaldia euskaraz. Soreasu Antzokian izango da. 21:30etan.

AZAROAK 22 (Larunbata)

● **ANTZERKIA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketak. *Aktorearen eguna. Euskal aktoreak.* Liburuaren aurkezpena. Antzerkia-esketxak Lakrikun Taldearen eskutik eta luntx-afaria Soreasuko tabernan. Soreasu Antzokian. 19:00etatik aurrera.

AZAROAK 23 (igandea)

● **ANTZERKI FAMILIARRA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketak. *Txirri, Mirri eta Txiribiton*

JR: Eta pantera beltza pailazoak. Puxtarri Taldeak taularatua. Soreasu Antzokian. 18:00etan.

AZAROAK 24 (astelehena)

● **ESKOLA ANTZERKIA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketen barruan eskola antzerki topaketak. Xabier Munibe Ikastolak prestatua. Antzezlana *Txindurria eta Txirrita, Txokolatezko Etxea eta Zazpi Antxume.* Soresu Antzokian 11:00etan.

AZAROAK 25 (asteartea)

● **ESKOLA ANTZERKIA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketen barruan eskola antzerki topaketak. Oiartzungo Elizalde Institutuak prestatua. Antzezlana *Matxinoko herritarrak.* Soreasu Antzokian. 11:00etan.

● **ESKOLA ANTZERKIA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketen barruan eskola antzerki topaketak. Gasteizko Calasanz Ikastetxeak prestatua. Antzezlana *Urkuletako bainu etxea.* Soreasun. 15:00etan.

AZAROAK 26 (asteazkena)

● **ESKOLA ANTZERKIA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketen barruan eskola antzerki topaketak. Errenteriako Koldo Mitxelena Herri Ikastetxeak prestatua. Antzezlana

Txomin Ipurdi. Soreasun. 11:00etan.

● **ESKOLA ANTZERKIA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketen barruan eskola antzerki topaketak. Azpeitiko Ikasberri Ikastolak prestatua. Antzezlana *Gaztelu Beldurgarria, Sorgindutako mendia eta Ixilmixilka.* Soreasun. 15:00etan.

● **ODOL EMATEA**

Odol emate eguna. Gipuzkoako elkarteak deituta. Ordutegia 18:30etatik 21:00etara. Anbulategian.

AZAROAK 27 (Osteguna)

● **ESKOLA ANTZERKIA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketen barruan eskola antzerki topaketak. Muxikako Urretxindorra Herri Ikastetxeak prestatua. Antzezlana *Aztiak.* Soreasu Antzokian. 11:00etan.

● **ESKOLA ANTZERKIA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketen barruan eskola antzerki topaketak. Santurtziko Axular Institutuak prestatuta. Antzezlana *Haili ume saharai.* Soreasun izango da. 15:00etan.

AZAROAK 29 (larunbata)

● **ANTZERKIA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketak. *Agoragofobiatuta!!* Azpeitiko Lakrikun Antzerki Taldea. Soreasu Antzokian. 21:30etan.

AZAROAK 30 (igandea)

● **MENDIA.**

Itziar-Lastur mendi ibilaldia gaztetxoentzat. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 09:00etan, plazatik.

● **FUTBOLA.**

Hirugarren Maila: Lagun Onak-Sestao R. 17:00etan.

● **ANTZERKIA.**

XXI. Euskal Antzerki Topaketak. *Ixa* antzezlana. Hika Teatro taldeak prestatua. Mikel Laskurainen monologoa. Soreasu Antzokian. 19:30etan. XXI. edizioaren amaiera.

ABENDUAK 1 (astelehena)

● **ERAKUSKETA.**

Urolaldeko Artisten Lanen XXII. erakusketaren irekiera. Abenduaren 19a arte irekita izango da. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara. Antxieta Etxean.

Zeuen ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 1. a ezkerria (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com



BETIDANIKO SUKALDARITZA

PARRILA. Arraina eta haragia

BI JANGELA. 60 eta 25 pertsonentzako tokia

ON EGIN!

Pablo VI Auzunea, 16
Tel.: 943 81 20 40
20730 AZPEITIA

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatuan aukera handia

URBISTONDO MARGOAK

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

Salbe Auzunea, 35 behea - 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Zumitza, ihia, ratana, forja eta medulazko altzariak lantzen ditugu

MATXIN XESTOAK

eskulagintza

- ✓ Pablo VI, 8 - 943 810 116 (denda)
- ✓ Matxinbenta - 943 880174 (tailerra)

ERAKUSKETA:
Eliz kalea, 12 - behea
Tfnoa. eta faxa: 943 81 12 12
BILTEGIA:
Landeta Hiribidea, 19
Tfnoa. 943 15 16 66
20730 AZPEITIA
E-mail: iturralde@euskalnet.net

Bainuak eta bainu osagarriak
ESKAINTZEN DUGUNA

Iturgintza
Berogailua, klimatizazioa, EUB eta berauen mantenu lanak
Gasa (EG-IV kategoria)
Erregai likidoak



ITURRALDE Iturgintza, S.L.

Kristina Fernandez

Ikasle Finlandiyan

Turkuri begiratue



- Finlandiko hiri zaharrena da, eta Helsinki hiriburutik 160 kilometrora dago.
- 174.618 lagun bizi dire.
- Industriye: jakiyeko, metala, logistikie, oihalgintzie, publizitate eta arte grafikuek.
- Hizkuntzie: Finesa (%93) eta suediera (%6) dire ofizialak. Laponiera (1.700 lagun).
- Erlijyue: luteranuek (%86) eta ortodoxuek (%1).

“Eguzkiye egin arren, guantak eta bufandie ezin zaizkin ahaztu”



Kristina Fernandez ezkerretik eskubire laugarrena da. / KRISTINA FERNANDEZ

Kazetaritzako karrerako azkeneko urte egitea jun da Erasmus beka batekin Kristina Fernandez azpeitiarra Turkura, Finlandire.

• Nolatan estudiatzera Finlandire?

Finlandireko plazak libre zaudenan eta kulture eta jende desberdine ezagutzeko gogoe naukenan.

• Zenbat denborarako jun haiz?

Bekie bederatzi hilabetekue den; baino igual pixket geihyo geldituko naun. Behin honera etorri eta negue ezagutu-te, udarie ere ezagutziek mereziko din.

• Inglesakin ze moduz...

Ondo, baino gogorra den dana inglese hitz egitie, ohitu artekue. Hasieran erdirik ez ninenan ulertzen. Orain pixkenaka gai naun apunte batzuk hartzeko.

• Zer hago, famili baten edo pisuen?

Berez, residentzi bat den, baino ez zauden harrerarik. Neure koartue eta komune zaudenat, sukaldie, berriz, 11 pertsonakin elkarbanatzen dinet. Oso ondo zion antolatute, unibertsitatetik gertu, eta zentruere ere ez zion urruti.

• Eguraldi aldaketa haundiye nabaritu al den Euskal Herritik Finlandire?

Bai, dexenteko aldie zion. Hasieran, lehenengo bi astiek, manga motxetan pasatu nizkinenan, baino orain, nahiz eta eguzkiye egon, guantak eta bufandie ezin zaizkin ahaztu. Haize hotza egiten din eta euzkiye ere gero eta ordu gutxiyotan zion. Ikusiko dinagu negue nola dan, hiru edo lau orduten bakarrik argiye edukitze hori...

• Azpeitiyen nesken futbol taldien ibiltzen hitzenan. Faltan botatzen al den?

Futbolien jokatzie ez hainbeste. Hemengo ekipo baten ari naun entrenatzen. Batipet ekipoko jendie botatzen dinet faltan, ordu asko pasatzen genituelako elkarrekin, eta girue ikeragarri ona hunan.

• Bisitarik izen al den?

Bai, koadrilako bat izen den bederatzi egun pasatzen. Ilusiyue egiten din etxetik urruti hagonanien lagun bat ikustiek eta batipet hire hizkuntzie hitz egitiek.



Ainitze Oruesagasti

HANGO JENDIE. “Orokorrien nahiko isilek ditun, geihyegi esango nikin. Bestela, oso jatorrak ditun eta mundu guztiyei laguntzeko prest egoten ditun”

MUTILENTZAKO
DENDA BERRIA

URBAN
GAZTE MODA

Ildefonso Gurrutxaga, 5
Tel. 943 08 03 64
AZPEITIA



OLOSA
Barroa Etorbidea 6 - 2.
Tel. 943 653590
Tel. 943 653568

AZPEITIA
Rotarren Plaza, 5 Behea
Tel. 943 813928



Aseguratu orain zure furgoneta Inork ez dizu merkeago eskainiko



**Oraingoan, abantaila
gehiago eskuratu ahal
izango dituzu Furgonetaren
asegurua kontratatzean.**

Merkatuko preziorik onena eskaintzen dizugu. Zure ekonomiari egokitutako hainbat produktu eta prezio dituzu aukeran; gainera, 24 orduko bidaia-laguntza izango duzu urteko 365 egunetan, eta, hori guztia, jakina, betiko kalitate-zerbitzuaren bermearekin.


	Hirugarrenetikiko aseguru beirak barne		Arrisku oroko aseguru	
Renault Express 1.4	251,30 €	41.813 pta	479,10 €	79.716 pta.
Citroen C15 D	253,78 €	42.225 pta	518,92 €	86.341 pta.
Citroen Berlingo 1.6 SX	261,09 €	43.442 pta	575,05 €	95.680 pta.
Mercedes Vito 2.2. Combi	383,09 €	63.741 pta	1.027,45 €	170.953 pta

Prezinoa kalkulatzeko
45 urteko gizonetzkoa
hartu da eredu gisa.
15 urteko gida-
baimena eta %30eko
deskontua duena

51.550 € lortu ditugu

Baietz 59.000 euro lortu!

Akzioak salgai Uztarrarian





Komunikazio osoa puntu bakarretan zure etxean

Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak

Ordenagailuen eta portatilen salmenta



Markako PC-ak Gure markako PC-ak Portatilak

Informatika zerbitzu teknikoak



Zerbitzu Tekniko azkarra Mantenu Kontratuak

Periferikoen salmenta eta konponketak



Multifuntzioak Formatu handiko inprimagailuak Laserrak

Sare informatikoen instalazio eta kudeaketa



Sareen diseinua eta muntaiak Sareen mantenua Serbitzariak

Kontabilitate kudeatze programen ezartzea



Kudeaketa programak Kontabilitate Nominak

WEB orrien diseinua eta mantenua



Erregistratzaile, balantza eta TPVen salmenta



Informatika aholkularitza



☎ - Nahi beste dei probintzia barruan hilean

@ - 24 orduko tarifa finkoa 22 €

☑ - Goi mailako irudi kalitatea eta 17 kanal



Azpeitia
Pablo VI 19 behea
943 157 321

Azkolia
Julio Urkixo 10 behea
Telf: 943 85 36 60

Zarautz
Kale Nagusia 1 Be
Telf: 94313338

Banatzailerik Ofiziala
Euskaltel



udazken honetan ere erabili zure bezero txartela

%10eko deskontua ATERA ETEKINA ZURE EROSKETEI!

oraindik ez baduzu, eskatu ezazu zure txartela

agirre oparidenda - erdikale, 1 aintzin - santiago, 8 disdira - elizkale, 1
 egaña - santiago, 16 jone eta maikar - enparan jostaldi - erdikale, 15
 kimetz - santiago, 6 martina isasti - erdikale, 10 oinkari - erdikalea, 5
 romaes - elizkale, 11

Azpeitiko alde-zaharreko Merkatarien Elkarte

* Agirre Oparidenda
* Aintzin
* Disdira
* Egaña
* Jone eta Maikar
* Jostaldi
* Kimetz
* Martina Isasti
* Oinkari
* Romaes